

antelka



LAN INDARRA
KATEARI LOTUA

GEDAR

SRK

— Berrindustrializazio-
estrategiak ideologia
sozialdemokrataren bi
elementu nagusi biltzen ditu: soldatapeko
lanaren zentraltasuna eta bere pertsonifikazio
zehatza fabrikako langile kolektiboarengan,
langile mugimenduaren baliozko gorpuzte bakar
gisa, bere formarik agerikoena eta tamaina
sozial handiko corpora hartzen duen forma
bakarra delako. Izan ere, mugimendu horren
tamainak garrantzia handia du, alde batetik,
sozialdemokrazia ebidentziaren gainean baino
ez delako sostengatzen (...); eta, bestetik, (...)
sindikatu burokratikoaren arabera egituratutako
langile mugimendu zabala bakarrik izan
daitekeelako baliagarria sozialdemokraziarentzat
klaseen arteko itunaren bermatzaile gisa
duen benetako funtzioa legitimatzeko.

Edulikia

6

10

26

40

52

EDITORIALA

Arteka

**Berrindustrializazioaren
mamua**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Latigoa eta matxinada
periferietan**

KOLABORAZIOA

Mario Aguiriano

**Asoziazioa eta iraultza.
Ekintza politikoaren
beharraren inguruko
ohar batzuk**

ERREPORTAJEA

Unai Vicente

**XX. mendearen azken
laurdeneko krisia eta
desindustrializazioa**

HISTORIA

ERREPORTAJEA

Imanol Satrustegi

**Trantsizioko langileen
sugar otzandua**

Berrindustrializazioaren mamua

Editoriala

Munduko gaitzak buru gaitztoen ekintzara murrizten dituztenek ez dute ezjakintasun hutsagatik egiten; beren burua salbatzaile gisa aurkezteko beharrezko ordaina delako egiten dute. Baina horren ondorio negargarria da salbazioa ezinezko bihurtzea, horren esanahia erlatibizatu egiten baita eta, gehienez ere, promesa soil batera mugatzen baita, beti salbatzailearen itxura zehatzari lotuta.

Hori gertatzen da, oro har, politika sozialdemokratarekin. Irabazteko promesarekin beti, gizarte-gaitzak ezabatzearekin, baina behin eta berriz itzultzen dira beti promesa eta gaitz berberak. Haustura-prozesua itzulera-prozesu bat da, eta promesa berrituena, ez baita ezerekin hausten benetan.

Azken finean, etsaiei izen-abizenak jartzea, beharrezkoa bada ere, berez ez da nahikoa. Etsaia seinالاتu behar da, baina baldintza sozial jakin baten haragitze gisa, zeina etsaiaren aurka borroka egiten baino ezin baita borrokatu. Klase-borroka eta komunismoaren aldeko borroka ez dira prozesu abstraktuak, antolakuntza-ideia baten aurka egiten direnak; itzulpen zehatz bat hartzen dute nahitaez, eta indibidualtasun soila baino zerbait gehiago gorpuzten duten gizabanakoen aurkako borrokan hedatzen dira.

Etsaia seinalatu behar da, baina baldintza sozial jakin baten haragitze gisa, zeina etsaiaren aurka borroka egiten baino ezin baita borrokatu. Klase-borroka eta komunismoaren aldeko borroka ez dira prozesu abstraktuak, antolakuntza-ideia baten aurka egiten direnak; itzulpen zehatz bat hartzen dute nahitaez, eta indibidualtasun soila baino zerbait gehiago gorpuzten duten gizabanakoen aurkako borrokan hedatzen dira

Horregatik, etsaia seinalatu behar bada ere, eta akaso bere funtzio soziala «gaizkia» bezala itzuli ere bai, era berean salatu behar da «ongia» egiteko asmoarekin bere funtzioan ordezkatu nahi duen hori, biak ala biak, «ongia» eta «gaizkia», ez baitira ezaugarri kontingenteak; bien edukia, gure ikuspuntuaren arabera, komunismoaren etikak ezartzen du eta. Gubernantzan ordezkatu nahi dituzten buru gaizto horiek gaiztoak dira gobernatzen dutelako, eta ekoizpen modu kapitalistan inskribatutako eskakizun sozialen arabera gobernatzen dutelako gobernatzen dute.

Aztergai dugun gaian, prozesu ekonomikoen subjektibatze idealistak diskurtso sozialdemokrata berregitea dakar hiru zutaberen gainean: iragan hobia, oparotasun ekonomiko handiagoa eta, batez ere, ideologia sozialdemokrataren legitimazio sozial handiagoa, zeina ideologia burgesa baita, makillaje-geruza txiki batekin. Iragan hori langile mugimenduaren inguruan egituratutako masamugimendu handien iragana da, soldata altuena eta burgesiaren eta langile-aristokraziaren arteko itun sozialarena. Azkeneko hori, klase ertain sozialdemokrataren oinarri ekonomiko eta juridikoa da.

Iragandako iragan hori, ordea, presente dago oraindik ideia sozialdemokratetan, industria handien objektu-forman fosilduta. Oparotasunaren eta makineriaren arteko lotura lehen aipatutako subjektibatze-prozesuaren beste aldea baino ez da; izan ere, horrek, prozesu objektiboa idealizatzeaz gain, subjektua eta bere garapena gauza bihurtzen ditu.

Egia objektibo bat dago: Kapitala aberastasun abstraktuaren metaketa da, modu handituan eta jarraituan. Horrek, gainera, itzulpen subjektiboa du: irabaziarekiko gose kapitalista. Azken horrek azken mendeetako prozesu ekonomiko handiak azaltzen ditu; baina, bere forma itxuraldatuan, buru gaiztoei lotutako gogo indibidual soil gisa agertzen da. Norbanakoaren gose hori behar ekonomikoa da, ordea, Kapitala pertsonifikazio indibiduala baino gehiago delako.

Kapitala eta kapitalista indibidualizatzen eta idealizatzen duen prozesu horrek berekin dakar Kapitala baliozko premisa sozial gisa onartzea. Kontua ez da ekoizpen modu kapitalista indargabetzea, baizik eta buru gaiztoak edo kapitalista baztertzea, azkeneko hori gaizkiari, eta ez bere funtzio sozial objektiboari, lotutako kategoria moral bihurtua. Horrela, nahikoa da neurri sozial bat izenez eta justifikazioz aldatzea, neurri horrek kapitalista izateari utz diezaion. Hala, programa sozialdemokratan berrindustrializazio-estrategia ikusten dugu kapital-metaketa berrosatze-prozesu nazionalaren funtsezko zutabe gisa, nahiz eta horrela aurkeztu ez, baizik eta oparotasun eta aberastasun-handitze abstraktu gisa. Berrindustrializazio-prozesu horrek abangoardiakoa izan behar du, punta-puntako teknologiarekin, nazioa munduko merkatuan abantailazko posizioetan jarriko duena.

Itzultzen badugu, horrek honako hau esan nahi du: ekoizpenaren industrializazio- eta modernizazio-prozesuak irabazi handiagoaz jabetu ahal izateko, hau da, langile klaseari gainbalio handiagoa erauzteko eta, gainera, egindako kapital-inbertsioaren aldean gainbalioaren erauzketa handitze-ko, hots, langile klasearen esplotazioa handitzeko behar besteko tamaina izan behar du.

Horrela, prozesu sozialaren subjektibatzeak prozesu sozialaren jarraitutasuna dakar, baina beste pertsona batzuekin, burges berriak, jada burgesak ez direnak, kapital-kudeatzaile hutsak baizik (sic). Hala ere, prozesu sozial horrek eragile aktiboen lehen asmoetik guztiz kontrakoak diren bideak har ditzake. Izan ere, sozialdemokraziak desindustrializazioa bulegoetan diseinatutako estrategia-tzat hartzen badu ere, irabazia ekonomia kapitalista egituratzeko elementu nagusi gisa ez ulertzeak disonantzia estrategikoak eta akats kategorikoak eragiten ditu, hala nola desindustrializazioa lan-prozesu zehatza desegiten duen prozesu itzulgarri gisa ulertzea, eta ez Kapitalaren metaketa eta zentralizazio gisa.


Prozesu ekonomikoen subjektibatze idealistak diskurtso sozialdemokrata berregitea dakar hiru zutaberen gainean: iragan hobe, oparotasun ekonomiko handiagoa eta, batez ere, ideologia sozialdemokrataren legitimazio sozial handiagoa, zeina ideologia burgesa baita, makillaje-geruza txiki batekin

***Ekoizpenaren
industrializazio-
eta modernizazio-
prozesuak irabazi
handiagoaz jabetu ahal
izateko, hau da, langile
klaseari gainbalio
handiagoa erauzteko
eta, gainera, egindako
kapital-inbertsioaren
aldean gainbalioaren
erauzketa handitzeko,
hots, langile klasearen
esplotazioa handitzeko
behar besteko tamaina
izan behar du***

Itsutasun hori, hein handi batean, sozialdemokraziak fede-dogma gisa eskuratutako eta etengabe aurkeztutako oinarri historikoen ondorio da. Berrindustrializazio-estrategiak ideologia sozialdemokrataren bi elementu nagusi biltzen ditu: soldatapeko lanaren zentraltasuna eta bere pertsonifikazio zehatza fabrikako langile kolektiboaren, langile mugimenduaren baliozko gorpuzte bakar gisa, bere formarik agerikoena eta tamaina sozial handiko corpusa hartzen duen forma bakarra delako. Izan ere, mugimendu horren tamainak garrantzia handia du, alde batetik, sozialdemokrazia ebidentziaren gainean baino ez delako sostengatzen (horregatik «langile klasea hil da» diote batzuek, eta «langile klasea industrian erreproduzitu behar da» besteek), eta agerikoa dena bakarrik existitzen delako; eta, bestetik, ordezkaturako presio-talde gisa jardun dezakeen hori bakarrik, hau da, sindikatu burokratikoaren arabera egituraturako langile mugimendu zabala bakarrik izan daitekeelako baliagarria sozialdemokraziarentzat klaseen arteko itunaren bermatzaile gisa duen benetako funtzioa legitimatzeko (edo proletalgoaren zapalkuntza berdintasun sozialaren banderapean), eta salbatzailearen funtzioa gorpuzten duen figura politiko bezala berritzeko.

Horregatik, sozialdemokraziaren premisa guztiak, indar kolektibo gisa, soldatapeko lanaren zentraltasuna gizarte-potentzia antolatua forma zehatzean, hau da, sindikatu burokratikoetan antolatutako industria-langile gisa, berreraikitzearen menpekoak dira. Dena den, ilusio eta mamu faltsuak, bai eta ongiaren haragitzea izan nahi izatea ere, ez dira nahikoa langile klasearen esplotazioa berrantolatzeke, industria-parke nazional bat berreraikitzea eta klase ertaineko profesionalen jarraibide burokratiko eta politikoen menpeko langile mugimendu bat berreraikitzea ahalbidetuko duen maila batean. ●

Latigoa eta matxinada periferietan



Testua — **Arteka**

Irudia — **Maitane Lizarraga**



*«Uste dut gertatutakoaren
egiak hainbeste ezeztatzen
duela Gerra Hotzari,
estatubatuarra izateari eta
globalizazioa gauzatu den
moduari buruz daukagun
ideia, ezen errazagoa izan
dela ez ikusiarena egitea».*

VINCENT BEVINS,
Yakarta metodoa

Deslokalizazio prozesuen ondorioz periferietan garatu den testuinguru politikoa izango du hizpide erreportaje honek, langile-mugimenduaren adierazpen zehatzetan eta haren aurkako atzoko zein gaurko errepresio kasuetan zentratuta. Zein baldintza daude herrialde horietan antolakuntza politikorako? Nola egiten dio eraso burgesiak masa desjabetuen antolakuntzari erdigune inperialistatik kanpo?

Askatasun politikoen auzira zuzenean jauzi egin aurretik, periferietako lan-baldintzen inguruko irudi orokorra freskatzea komeni da, eta horretarako datu batzuk aztertuko ditugu. Azken hamarkadetan asko idatzi izan da periferietako soldatapeko lanaren erregimen espezifikoa. Urrutira joan gabe, aldizkari honetan bertan bi erreportaje jorratu genituen soldataren nazioarteko egituraren eta periferietako lan-baldintzen inguruan: «Herioa ogibide» ⁽¹⁾ eta «Argi-itzalak mapan» ⁽²⁾. Deslokalizazioa kokatzen laguntzen duten zifra interesgarri ugari ematen dira haietan, adibidez, mundu mailako arropa ekoizpenaren % 60 Asian kokatzen dela, Asiako hego-ekialdean, zehazki. 2018an Kanbodiako ehungintza sektorean 700.000 lagun inguru aritzen ziren soldatapeko lanean hilean 181 euroren truke. Bangladeshen 4,5 milioi inguru zirela estimatzen da, 247 euroko batez besteko soldatarekin. Handik gertu, Vietnamen, Samsung enpresari bakarrik bertako esportazioen % 25 dagokiola uste da, eta Intel ere bertan du fabrikazioaren zatirik handiena. Ezinezkoa da potentzia aurreratuen ekonomian halako fenomenoak aurkitzea. Lan-merkatuaren zurrumbilo horren erdian aurkitzen da proletalgoa: 2017an mundu osoan 2,8 milioi langilek galdu zuten bizia soldatapeko lanean, eta 374 milioi inguruk, berriz, lanaren ondoriozko lesio zein gaixotasunak izan zituzten urte horretan. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) datuen arabera, Costa Rica da aztertutako 72 herrialdeen artean laneko lesio zein heriotza gehien dituen herrialdea: 9.421 lesio profesional ez-hilgarri eta 9,7 hildako 100.000 langileko 2016an. Latinoamerikako beste lau herrialde ere podiumean agertzen dira: Argentina, Txile, Uruguai eta Mexiko ⁽³⁾.

Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) egin-dako ikerketa batek ⁽⁴⁾ argitaratu atera duenez, Alemaniako, Norvegiako eta Danimarkako langileak ziren urtean batez besteko lanordu gutxien zituztenak 2019an; 1.386 ordu Alemanian, 1.384 Norvegian eta 1.380 Danimarkan. Txanponaren beste aldera begiratuta, ELGAko herrialdeen artean urteko batez besteko lanaldi altuenak zituzten bi herrialdeak Hego Amerikakoak ziren: Mexiko (2.137 ordu) eta Costa Rica (2.060 ordu). Txilek seigarren postuan jarraitzen zien, 1.914 ordurekin. Are, Statistak gogorarazten duenez ⁽⁵⁾, Latinoamerikako herrialde askok eta askok ELGAko herrialdeen asteko batez besteko lanordu kopurua soberan gainditzen zuen. Bolivia, Honduras, El Salvador eta Peru nabarmentzen dira, asteen 49 orduz edo gehiagoz lan egiten dutelako herrialde horietako hamar langiletik hiruk baino gehiagok. Beste herrialde batzuetan, hala nola Mexikon eta Kolonbian, % 27k betetzen dute «gehiagizko lanaldi» deituriko indizea, eta Venezuelan eta Panaman, berriz, % 10ekoa baino zertxobait txikiagoa baino ez. Munduko hiriburuak beren langileen batez besteko lanorduen arabera sailkatzen dituen 2021eko sailkapenari begiratzuz gero, ez dago Europako ez Ipar Amerikako herrialdeetako hiribururik 20. postura arte ⁽⁶⁾.

Higieneari dagokionez, *Baliabide Hidrikoen Garapenari buruzko Nazio Batuen Munduko Txostenak* iazko abenduan estimatzen zuen urtero ia 400.000 langile hiltzen direla soldatapeko lanean, lan-eremuan harrrapatutako gaixotasun kutsakorren ondorioz ⁽⁷⁾. Horien faktore nagusiak edateko uraren kalitate txarra, saneamendu eskasa zein higienarik eza izaten direla ohartarazten dute, eta intzidentzia nabarmen handiagoa da erdigune inperialistatik kanpo.

Munduko hiriburuak beren langileen batez besteko lanorduen arabera sailkatzen dituen 2021eko sailkapenari begiratzuz gero, ez dago Europako ez Ipar Amerikako herrialdeetako hiribururik 20. postura arte

Bestalde, Unicef erakundearen arabera, mundu osoan 5 eta 17 urte arteko 160 milioi haurrek baino gehiagok egiten dute lan, eta horien ia erdia (79 milioi haur) lan arriskutsuetan aritzen dela uste da ⁽⁸⁾. Saharaz azpiko Afrikan, zehazki, 2016. eta 2020. urteen artean lan egin duten haurrak 16,6 milioi gehiago izan direla diote.

Ez da imajinatzen zaila muturreko baldintza horien guztien aurrean langileek matxinatzeko joera izatea, sarritan euren osasuna eta segurtasuna zuzenean mehatxatzen duten egoeren erdian aurkitzen baitira. Logikoa da, beraz, periferietako langileriak aldiro kontzientzia hartu eta grebak, protestak zein altxamenduak antolatzea, XIX. mendeko industrializazioaren sasoian Europako eta Ipar Amerikako langileek egin zuten bezalaxe. Burgesiak bi mende baino gehiagoko esperientzia dauka klase agintari gisa, eta zapalkuntza eraginkor egiteko metodoak perfekzionatu ditu prozesu historiko horretan.

ASKATASUN POLITIKOAK MUNDUAN

Zer nolako baldintzak daude gaur egun mundu zabalean langileriaren antolakuntza eta borrokarako? Datuek erakusten dutenez, formalki aitortutako askatasun politikoak, araua baino, salbuespena dira toki gehienetan. Nazioarteko Konfederazio Sindikalaren (CSI, gaztelaniazko sigletan) *Global Rights Index* txostenaren arabera ⁽⁹⁾, 2022an munduko herrialdeen % 87tan greba-eskubidea urratu zen, hau da, 2014an baino % 24 gehiagotan. Herrialdeen % 74tan langileei sindikatzeko eskubidea ukatu zaie, eta 2021. eta 2022. urteen artean bakarrik, debeku hori ezartzen duten estatuen kopurua 106tik 113ra igo da. Munduko estatuen % 79k hitzarmen kolektiborako eskubidea ere urratu zuten iaz. Biltzeko eta manifestazioak egiteko eskubidea kriminalizatu zutenak % 41 izan ziren gutxienez. 2014an sindikatuen erregistroa oztopatu edo debekatu zuten herrialdeak % 59 izan ziren; aldiz, 2022an % 74ra igo zen kopuru hori. Munduko herrialdeen % 66k ez diote justiziara sarbiderik bermatzen langileei, eta kontrara, gutxienez 69 herrialdetan atxiloteta arbitrarioak jasan dituzte beharginek. Hori dena gutxi balitz, duela bi urte baino bost gehiago izan ziren iaz langileen aurkako zuzeneko eraso fisikoak erregistratu zituzten herrialdeak: 2021ean 45 zenbatu ziren, eta 2022an 50. Joan den urtean hamahiru herrialdetan erail zituzten euren bizi-baldintzak hobetzearen alde borrokan ari ziren langileak, protesten erdian zein atentatuen bidez. Bangladesh, Kolonbia, Ekuador, Eswatini, Filipinak, Guatemala, Haiti, India, Irak, Italia, Lesotho, Myanmar eta Hego Afrikan erregistratu ziren terrorismo patronalaren ekintza horiek.

Laburbilduz, azken bederatzi urteetan langileriaren eskubide politiko guztien kontrako oldarraldi orokorra izan da mundu mailan. Hala ere, egoera desberdina da tokiaren arabera: Europako herrialde gehienetan, adibidez, «langileen eskubideen urraketa ugari», «urraketa erregularrak» edota «sistematikoak» daudela adierazten du txostenak. Bada, hala ere, hura da mundu mailan langileen askatasun politikoaren baldintza «onenak» dituen ingurunea. Hainbat erakusleren konbinazioaren bidez, langileen eskubide politikoaren egoeraren araberrako puntuazio bat kalkulatzeko CSI, batetik bosterako eskalan. Bata egoera «onena» eta bosta okerrera izaki, ondokoak dira munduko zonetako indizeak: Europa 2,49; Afrika 3,76; Ekialde Hurbila eta Afrika Iparraldea 4,53; Asia Pazifikoa 4,22 eta Amerikak 3,53.



ZONAKA

1. Ekialde Hurbila eta Afrikako Iparralde

2022an, Ekialde Ertaineko eta Afrikako Iparraldeko zonak «munduko okerrera» izaten jarraitzen zuen CSIren txostenean, langileen eskubide politikoei dagokienez, oro har. 4,53ko batez besteko sailkapena aurreko urteko batez bestekoa (4,50) baino handiagoa izan zen, eta, beraz, «urraketa sistematikoen eta bermatu gabeko eskubideen» graduan kokatzen dute. Blokea osatzen duten hemeretzi herrialdeen artean, datu hauek ikus daitezke:

- % 100etan hitzarmen kolektiborik gabe daude.
- % 100etan sindikatzeko eskubidea ukatuta dute.
- % 100etan sindikatuen erregistroa galarazten dute.
- % 95etan greba eskubidea urratzen dute.
- % 84k adierazpen zein bilkura askatasuna ukatzen dute.
- % 79k langileei justiziara sarbidea ukatzen diete.
- % 47tan langileen aurkako atxiloketak egin dituzte.
- % 42tan eraso fisiko zuzenak izan dira.
- Langileen erailketak Iraken.

2. Asia Pazifikoa (23 herrialde)

- Greba eskubidearen urraketa: % 87.
- Hitzarmen kolektiborako eskubidea ukatuta: % 83.
- Sindikatzeko eskubiderik ez: % 87.
- Justiziara sarbiderik ez: % 70.
- Eraso fisikoak: % 43.
- Sindikatuen erregistroa ukatuta: % 91.
- Adierazpen zein bilkura askatasunaren aurkako erasoak: % 61.
- Langileen aurkako atxiloketak: % 83.
- Langileen erailketak Bangladeshen, Filipinetan, Indian eta Myanmarren.

3. Afrika (39 herrialde)

- Greba eskubidearen urraketa: % 95.
- Hitzarmen kolektiborako eskubidea ukatuta: % 93.
- Sindikatzeko eskubiderik ez: % 95.
- Justiziara sarbiderik ez: % 90.
- Eraso fisikoak: % 31.
- Sindikatuen erregistroa ukatuta: % 79.
- Adierazpen zein bilkura askatasunaren aurkako erasoak: % 45.
- Langileen aurkako atxiloketak: % 36.
- Langileen erailketak Eswatinin, Lesothon eta Hego Afrikan.

4. Amerika (25 herrialde)

- Greba eskubidearen urraketa: % 92.
- Hitzarmen kolektiborako eskubidea ukatuta: % 76.
- Sindikatzeko eskubiderik ez: % 76.
- Justiziara sarbiderik ez: % 77.
- Eraso fisikoak: % 36.
- Sindikatuen erregistroa ukatuta: % 88.
- Adierazpen zein bilkura askatasunaren aurkako erasoak: % 24.
- Langileen aurkako atxiloketak: % 52.
- Langileen erailketak Kolonbian, Ecuadorren, Guatemalan eta Haitin.

2022an, Ekialde Ertaineko eta Afrika Iparraldeko zonak «munduko okerrera» izaten jarraitzen zuen CSIren txostenean, langileen eskubide politikoei dagokienez, oro har

KASU ZEHATZAK

Langileen erailketetan fokua jarrita, Kolonbiak aipamen berezia merezi du. Izan ere, datuen arabera hura da langile zein sindikalistentzako herrialderik arriskutsuena mundu osoan. Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD) duela urte batzuk egindako azterlanen arabera, 1984. eta 2012. urteen artean 2.800 sindikalistatik gora inguru erail zituzten Kolonbian, ia 100 urtean, % 94,4ko zigorgabetasun-mailarekin ⁽¹⁰⁾. Azterlanak hauek zenbatu zituen: 3.400 mehatxu, 1.292 desplazamendu-kasu, 529 atxiloketa, 192 atentatu, 208 jazarpen-kasu, 216 bortxazko desagertze, 83 tortura kasu eta 163 bahiketa. Kolonbiako Lanaren Konfederazio Nagusiaren zifren arabera, duela hamarkada bat mundu osoko sindikalisten hilketen % 64 inguru Kolonbian gertatzen ziren ⁽¹¹⁾. 2019. urtea eta 2020ko lehen seihilekoa bakarrik kontuan hartuta, sindikalisten aurkako lau homizidio saiakera, bortxazko desagertze bat, 198 heriotza-mehatxu eta hamalau buruzagiren erailketak zenbatu zituen CSIk ⁽¹²⁾. 2021. eta 2022. urteen artean, berriz, hamahiru sindikalista erail zituzten, beste sei erailtzen saiatu ziren, beste 99ri heriotza-mehatxuak egin zizkieten eta zortzi modu arbitrarioan atxilotu zituzten ⁽¹³⁾. Perspektiba historiko zabalagoan, 1973ko urtarri-laren 1etik 2018ko abenduaren 31ra, 14.992 eskubide-urraketa erregistratu ziren sindikalisten bizitzan, askatasunaren edota osotasun fisikoaren aurka. Eraso horietatik 3.240k 480 sindikatu ingururi eragin zieten uste da ⁽¹⁴⁾. Krimen gehienak argitu gabe geratzen dira, eta inolako babesik ez dutenez, sindikalisten eta haien familien bizitzek etengabe jarraitzen dute mehatxupean. Amerika da, oro har, langileentzako kontinenterik hilgarriena. CSIren Eskubideen Indize Globalean, 2022an, sindikalisten erailketak erregistratu zituzten hamahiru herrialdeetatik lau Amerikan zeuden. Langileen eskubideen 15.481 urraketa zenbatu ziren iaz kontinentean, eta horietatik 3.295 erailketak izan ziren.

Amerika da, oro har, langileentzako kontinenterik hilgarriena. CSIren Eskubideen Indize Globalean, 2022an, sindikalisten erailketak erregistratu zituzten hamahiru herrialdeetatik lau Amerikan zeuden. Langileen eskubideen 15.481 urraketa zenbatu ziren iaz kontinentean, eta horietatik 3.295 erailketak izan ziren

Lege antisindikalek, greba-hausleek eta paramilitarismoak periferiako langile-mugimenduen eguneroko ogia izaten jarraitzen dutela ikusi dugu. Duela ez asko argitaratutako albiste pare batek auziari are gertuagotik erreparatzeko aukera ematen dute. Filipinetako Alderdi Komunistak (CPP) berriki aditzera eman duenez, indar armatuek alderdiko bi buruzagi eta beste zortzi militante erail zizkieten 2022ko abuztuaren 21ean ⁽¹⁵⁾. Izan ere, Filipinetan komunista izatea edo grebak antolatzea ez da txantxetarako kontua. CSIren txostenak berak ezin argiago dio: «Filipinetan, langileak eta haien ordezkariak bereziki zaurgarriak dira oraindik indarkeriazko erasoan, lar-

deria-ekintzen eta atxiloketa arbitrarioen aurrean. Duterte presidenteak gorri modura etiketatzen ditu sindikalistak, maltzurki, eta poliziaren zein armadaren sarekaden edota erasoaldien mehatxupean jarraitzen dute. 50 sindikalista baino gehiago hil dituzte Duterte presidenteak 2016an boterea eskuratu zuenetik». Handik gertu, Indonesian, militante komunistei hamar urteko kartzela-zigorra ezartzea baimenduko duen lege berri bat onartu zuten iaz ⁽¹⁶⁾. Horrekin batera, lau urteko espetxealdiak ere ezarriko dituzte propaganda komunista egite hutsagatik. Jarraian ikusiko dugunez, praktika horiek sustrai historiko sakonak dituzte herrialde horietan guztietan.

PERIFERIAKO ERREPRESIOA: HISTORIA ETA DOKTRINA

Langileriaren erresistentzia antolatua zapaltzea eta kriminalizatzea kapitalismoaren berezko joera orokor eta ohikoena bada ere, periferiako herrialde askotan askatasun politikoen urraketek gaur egun hartzen duten forma zehatza ulertzeko gutxienez bi faktore hartu behar dira kontuan: 1) lurralde horiek une historiko honetan lanaren nazioarteko banaketan eta ekoizpen-kate globalean betetzen duten funtzioa eta 2) kontramatxinadaren historia. Lehenengo puntua ezau-garritzeko zertzelada batzuk aurretik eman ditugunez eta zenbaki honetako gainontzeko artikuluek funtzio historiko hori sakonago lantzen dutenez, bigarren faktorean jarriko dugu arreta: periferietako proletalgo antolatua erreprimitzeko historikoki baliatu diren metodoak eta horiek jarraitu izan dien logika.



Aski ezaguna den bezala, kolonialismoaren garaian lan-indarraren gaineko dominazio zuzena zegoen, eta esplotazioa bere muga biofisikoetara ino eramaten zuten morrontza-harremanek arautzen zituzten gizarte horiek. Modu horretan, kapitalismoaren hedapenaren eta metaketaren lehen faserako ezinbestekoak izan ziren lehengaiak, metal preziatuak zein harribitxiak arpilatu zituzten potentzia kolonizatzaileek. Aldi berean, Europan eta Ipar Amerikan aurretik egin zuten moduan, nekazarien masa desjabetuen artean ekoizpen-harreman kapitalista berriak kulturalki txertatzeko balio izan zien horrek, biztanleria lan-indar merkantzia modura diziplinatzeko; «modernizaziorako», funtsean. Gaur egun jabetza pribatua eta soldatapeko lana kulturalki zeharo errotuta daude Mendebaldean, gizarteak betidanik printzipio horien baitan antolatu direla pentsatzeraino. Askok uste dute forma sozial horren arabera funtzionatu izan ez duten zibilizazioek besterik gabe onartu zutela lurraren jabetza komunala galtzea nahiz bizibideak lortzeko modu bakarra beste norbaitentzat lan egin beharra izatea, alegia, basakeria hori dena modu baketsuan ezarri zela. Edozein historialari seriok mito hori gezurtatzen du gaur egun, sobera frogatuta baitago biztanleria indigena zein esklaboak kasu askotan heriotzara arte egin ziola kontra bizimodu arrotz horri. Haien zerbitzura lan egin nahi ez zutenak, lurren desjabetzaren aurka altxatzen zirenak, ebanjelizatuak izan nahi ez zutenak edo besterik gabe edozein injustiziaren aurrean makurtzen ez zirenak oztopo ziren zibilizazio kapitalistaren ezarpenerako. Kolonoek ehiztariari hozka egiten dion txakurra bezalaxe akabatzen zituzten.

XX. mendeko 40ko eta 60ko hamarkaden artean, aldatu egin zen potentzia kapitalistek periferiak menperatzeko baliatzen zuten forma politikoa, eta deskolonizazio prozesuak abiarazi ziren. XIX. mendetik XX. mendearen erdialdera bitartean fenomeno esanguratsu bat gauzatu zen gainera: iraultza proletarioa. 1917ko Urriko Iraultza Handiaz geroztik, administrazio kolonialek eta Mendebaldeko goi-burgesiak bazekiten «hirugarren mundu» deituriko espazio horretako mugimendu komunistek nahiz nazio askapen mugimenduek ordezkatzeko zuten mehatxua jada ez zela matxinada indigenen erresistentzia bezalakoa. Gerra berria «komunismo internazionalaren aurkako gurutzada» zen, gerra modernoa. Aurrean zuten etsaia gai izan zen iraultza-prozesuak martxan jarri, bere burua nazioartean antolatu eta zenbait tokitan baita botere politikoa lortzeko ere. Sobietar Batasunak potentzia industrial aurreratu bat garaitu zuen, Alemania nazia, eta munduko lurrazalaren 1/6 hartzen zuen berak bakarrik.

«Etsai komunista» berri hark, ordea, ez zuen borrokatzen armen indar hutsean oinarrituta eta unitate guztiak gudu-zelai jakin batean aurrez aurre jarrita. Roger Trinquierrek (Frantziako armadako ofiziala izan zen Bigarren Mundu Gerran, Indotxinako Lehen Gerran eta Aljeriako Gerran) argi eta garbi azaldu zuen logika hori, *Gerra modernoa eta gerrillen aurkako borroka* idazlanean ⁽¹⁷⁾. Berak azpimarratzen zuen nazio askapen mugimenduek nahiz komunistek «borroka-metodo konbentzional zein ez-konbentzionalen mailaketa konplexu bat» baliatzen zutela: agitazioa, propaganda, doktrinamendua, protestak, grebak, sabotajeak, atentatuak, zirikatze ekintzak, gerrilla-gerra, eta, azkenik, botere politikoa hartzeko gerra zibil irekia. Bestela esanda, haien helburu estrategikoak biztanleriaren babes estua irabazi, lurraldearen nahiz bertako prozesu sozialen gaineko kontrola hartu, zibilizazio eredu zaharra desagerrarazi eta berri bat eraikitzea zela ikasi zuten Trinquierren belaunaldiko estatuburuek. Hori gutxi balitz, metropoliko burgesia erabat kontziente zen ahulgune politiko estrukturalak zituela periferietako biztanleriarekiko,

bai kualitatiboki nahiz kuantitatiboki. Adibide bat jartzearen, XX. mendearen lehen erdialdeko Frantziaren kolonizazioaren sasoian Indotxinan 21 milioi biztanle baino gehiago bizi zirela uste da, eta 21 milioi lagun horiek 40.000 kolono frantsesen morroiak ziren praktikan. Gainera, ez da ahaztu behar XX. mendearen hasieran kolonien independentzia babesten zuten Europako alderdi politiko bakarrak komunistak zirela. Faktore horiek guztiak batuta, kolonialismoaren amaieran eta neokolonialismoaren hasieran komunismoak periferietan garaipenerako aukera errealek zituela identifikatzen zen. Fronte guztietara hedaturiko gerra global baten aurrean aurkitzen zirenez, mundu mailako sarraski-sare bat osatu zuten. Vincent Bevinsek ezin hobeto azaltzen du *Yakarta metodoa* liburuan: «Askotan ahazten da antikomunismo bortitza mundu-mailako indar bat izan zela, eta, bere protagonistek mugak gurutzatuz beste toki batzuetako arrakastetatik eta porrotetatik ikasiz egiten zutela lan, eta hala lortzen zuela beren mugimenduak bultzada eta garaipenak. Gertatutakoa ulertzeko, nazioarteko lankidetzara hori ulertu behar dugu» ⁽¹⁸⁾.

Frantziako eta AEBetako armadek nahiz inteligentzia-zerbitzuek Trinquierrenak bezalako kontzeptu estrategiko berriak eta teknika zehatzak irakatsi zituzten akademia militarretan, hala nola Ameriketako Eskolaren modukoetan, mehatxu berriari aurre egiteko eraginkorragoak izango zirenak. Periferiako herrialdeetan greba bat antolatzea jada ez zen enpresari jakin baten irabazi pribatuen aurkako mehatxu soil bat, edo manifestazio bat egitea ez zen desordena publiko puntuala, «oldarraldi komunista globalaren» fase, aspektu edo zati bat baizik. Kalean kartel komunista bat jartzea bezalako ekintza txiki bat ere ordena sozial osoaren aurkako arrisku zuzena zela ulertzen zuten, gerra-ekintza bat. Periferietako administrazio kolonial zein postkolonialen esku zegoen horren arabera neurriak hartzea, kontramatxinadako eskuliburuetak jarraibideak erabiliz. Horrela ulertzen da mundu osoan milioika pertsona komunismoaren aurkako gerraren banderapean akabatzeke erabili ziren metodoen ankerkeria neurrigabea eta genozidioaren dimentsioa bera. Gainera, mugimendu komunistak zein nazio askapen mugimenduak gizarte zibillarekin nahasita egoteak are gehiago aldrebesten zuen auzia: periferietako biztanle oro ezkutuko borrokalari bat izan zitekeenez, helburu militarra zen potentzian. Paranoia zein izu-egoera orokortzea eta salaketaren kulturaren errotzea eragin zituen sorgin-ehiza global horrek. Kasu askotan erakunde komunistekin zerikusirik ez zuten pertsonak ere inolako frogarik gabe zigortu, torturatu eta erail zituzten. Baina berdin zien, ez gerrako lege klasikoek, ez nazioarteko zuzenbideak ez eta giza eskubideen kartak jada ez baitzieten balio borroka-metodo ez-kontzentzionalak erabiltzen zituen etsai haren aurka. Gerra psikologikoa, masen kontrola, inteligentzia-zerbitzuak, heriotzaren eskudroiak, tortura metodo basatiak, bahiketak, desagertzeak, hilketa selektibo zein masiboak... Horiek izan ziren inperialistek mundu

zabaleko operazio-antzokian entseatu zituzten doktrina berriaren armak. Ondorioz, leku askotan antolakuntza-kultura erabat suntsituta geratu zen, eta erbesteratze, espetxeratze, heriotza eta biztanleria izutuaren arrasto oso bat utzi zuten atzean. Beste leku batzuetan, aldiz, mugimendu inkonformistak ez ziren erabat desegin, baina ez ziren inoiz izan zirenaren itzalean ere geratu. Prozesu horren guztiaren ondoren uler daiteke gaur egun zenbait herrialdeetan erreforma politiko edota sozial txikienaren aurrean horrenbesteko oldarkortasun erreakzionarioa egotea.



Periferiako herrialdeetan greba bat antolatzea jada ez zen enpresari jakin baten irabazi pribatuen aurkako mehatxu soil bat, edo manifestazio bat egitea ez zen desordena publiko puntuala, «oldarraldi komunista globalaren» fase, aspektu edo zati bat baizik

Hego Amerikako Kondor Operazioa eta Asia Pazifikoko sarraski antikomunistak dira Bigarren Mundu Gerraren osteko izu burges horren adibiderik argienak. Iran salbuetsita, masa-hil-keta antikomunistak gauzatu zituzten herrialde guztiak AEBen aliatuak izan ziren. Gainera, aipatzekoa da genozidio horien zifrak konfrontazio militar zuzenetik kanpoko exekuzioei dagozkiela. Jarraian aipatuko diren zenbakiak nazioarteko organismo burgesek behetik jotako estimazio kontserbadoreak dira, Vincent Bevinsek *Yakarta metodoa* liburuan jasoak ⁽¹⁹⁾:

- Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Paraguay eta Uruguay (1970-1980): 50.000-90.000 hildako
- Kolonbia (1984-2002): 5.000
- Hego Korea (1948-1950): 100.000-200.000
- El Salvador (1979-1992): 85.000
- Filipinak (1972-1986): 3.250
- Guatemala (1954-1996): 200.000
- Honduras (1980-1993): 200
- Indonesia (1965-1966): 1.000.000-2.000.000
- Irak (1963-1978): 5.000
- Iran (1988): 5.000
- Mexiko (1965-1982): 1.300
- Nikaragua (1979-1989): 50.000
- Sri Lanka (1987-1990): 40.000-60.000
- Sudan (1971): 100
- Tailandia (1973): 3.000
- Taiwan (1947): 10.000
- Ekialdeko Timor (1975-1999): 300.000
- Venezuela (1959-1970): 500-1.500
- Vietnam (1968-1972): 50.000

Indonesiako kasua bereziki deigarria da. 60ko hamarkadaren hasieran munduko seigarren herrialderik jendetsuena zen, eta urtebete eskasean milioika lagunak aurkako genozidio bat egin zutela kalkulatzen da; zenbait iturrik hiru milioi hildakoz ere hitz egiten dute. Sarraski horietan gizakiak imajina ditzakeen metodorik ankerrenak erabili ziren, gaur egungo edozein polizia-agente mendebaldar ere zurbilaraziko luketenak. *The Act of Killing* pelikulan borraroei inolako konplexurik gabe eta xehetasun osoz aitortzen dituzte euren krimenak ⁽²⁰⁾. Zumurruak zabaltzen hasi ziren nahita, hala nola Indonesiako Alderdi Komunista (PKI) armadako goi-karguak hiltzen hasi zela eta altxamendu bat prestatzen ari zela, eta Estatuak paramilitarrei, mafiei, islamistei zein soldaduei «komunistak erailtzeko berariazko irizpidea» eman zieten aldi berean. Horren ondorioz, garbiketa ideologikoa naziak ere amestuko ez luketen abiaduran gauzatu zuten: hilabete batzuen buruan PKI ia erabat desegin zuten. Hiru milioi militantedun organo erraldoi bat, Sobietar Batasunaz eta Txinaz kanpo munduan zegoen Alderdi Komunistarik handiena zena, ezerezean geratu zen. Txinatarren aurkako garbiketa etnikoa egiteko ere baliatu zuten, eta sindikatuak nahiz antolakunde ezkertiarrik txikiak ere errukirik gabe sarraskitu zituzten.

Gainetik aipatu ditugun gertakariak periferietan sortu berri ziren kolonialismo osteko estatu-aparatuen «suzko bataioa» ⁽²¹⁾ izan ziren. Bertako proletalgoa politikoki eta militarki menperatzeko gai zirela erakutsi ahala, periferietako burgesia nazionalai «estatu independenteak» eratzen utzi zieten. Beraz, botere burgesak proletalgoaren aurkako biolentziaren erabilera berezkoa duen arren, objektiboa da zona geografiko jakin batzuetako poliziek, indar armatuek eta miliziek askoz esperientzia zabalagoa eta berriagoa dutela sarraski-praktiketan.

Hala ere, aipatzekoa da odol-isuri horren guztiaren aurrean Mendebaldeko moral burgesak darabilen hipokrisia, askotan fenomeno horiek «atzera-pen kulturalagatik» izan direla esatera iristen baita. Arrazoia alderantzizkoa da: Bigarren Mundu Gerraren osteko genozidio antiproletario gehienak ezin dira Mendebaldeko potentzien motibazio ideologiko, interes politiko, finantziario ekonomiko eta entrenamendu militarrik gabe azaldu, hots, modernitate kapitalistari dagozkion gertakariak dira, eta ezinbesteko funtzioa bete dute haren antagonismoa neutralizatzen. Bevinsek argi eta garbi dio bere ikerketan: «Brasilen, Indonesian eta planetan zehar banatutako beste 21 herrialdetan izan zen indarkeria ez zen ustekabekoa izan, ezta munduko historiako gertakari nagusien bigarren mailako ondorio bat ere. Heriotza horiek ez ziren izan “heriotzarik hotzena eta ankerrena”, ez inolako aldaketarik ekarri ez zuten akats tragiko hutsak. Guztiz kontrakoa. Indarkeria eragin-korra izan zen, prozesu handiago baten funtsezko zatia. Gerra Hotzaren eta Estatu Batuen nazioarteko helburuen ikuspegi osorik gabe, gertakariak oso zailak dira sinesten, ulertzen edo epaitzen» ⁽²²⁾.

Hilabete batzuen buruan Indonesiako Alderdi Komunista (PKI) ia erabat desegin zuten. Hiru milioi militantedun organo erraldoi bat, Sobietar Batasunaz eta Txinaz kanpo munduan zegoen Alderdi Komunistarik handiena zena, ezerezean geratu zen

***Bigarren Mundu Gerraren osteko
genozidio antiproletario gehienak
ezin dira Mendebaldeko potentzien
motibazio ideologiko, interes
politiko, finantziario ekonomiko
eta entrenamendu militarrik gabe
azaldu, hots, modernitate kapitalistari
dagozkion gertakariak dira, eta
ezinbesteko funtzioa bete dute haren
antagonismoa neutralizatzen***

***Filipinetako Alderdi Komunista
(CPP) eta bere adar militarra den
Herri Armada Berria (NPA) 1968tik
gerran daude Estatuaren aurka.
Hirigune zein landa-eremuko iraultza
sozialista helburu, Duterteren gobernu
autoritarioaren kontrako oposizio
zabala gidatzen dute gaur egun***

ERRESISTENTZIA PROLETARIOA PERIFERIAN

Errepresioa gordina izan arren, azpimarratzekoa da periferietako zapaldu guztiek ez dutela burua makurtu. Horren adibide nabarmenena dira Indiako Matxinada Naxalitak ⁽²³⁾ edota Filipinetako Herri Armada Berriak estatuekin gaur egun dituzten gerra zibil prozesuak. Mendebaldeko erdigune inperialistan oso ezagunak ez badira ere, bi mugimendu komunista horiek nolabaiteko botere-dualtasun bat erai-ki dutela esan daiteke, XXI. mendeko edozein antolakunde komunista mendebaldarrek amestu ere egingo ez lukeen indar sozialarekin. Hemen Filipinetako kasuari begirada orokor bat botako diogu.

Filipinetako Alderdi Komunista (CPP) eta bere adar militarra den Herri Armada Berria (NPA) 1968tik gerran daude Estatuaren aurka. Hirigune zein landa-eremuko iraultza sozialista helburu, Duterteren gobernu autoritarioaren kontrako oposizio zabala gidatzen dute gaur egun. Horretarako, CP-Pren estrategiarekin bat egiten duten erakundeen sare konplexu bat eratu dute: Filipinetako Fronte Demokratiko Nazionala (NDFP). *Descifrando la Guerra* atariaren erreportaje batean ⁽²⁴⁾ azaltzen dutenez, alderdiak bi ildo uz-tartzen ditu: batetik, gutxieneko erre-forma demokratikoen aldarrikapenen gidaritzari eta inizatibari eusten die «herri mugimenduetan», eta, bestetik, gerrilla-gerra iraultzailea baliatzen du Estatuaren boterea higitzeko. Iniziatiba antifaxisten eta antiinperialis-ten artean erreferentzia irabazten du horrela, baita nekazal masa txiroen artean ere. Fronte Bakarraren takti-karekin, herrialdeko agenda politikoa dinamizatzea dute helburu, langile-klaseko sektore desberdinetan antola-kundeak eratu eta bertatik eguneroko arazoen inguruko lanketak eginez.

Taktika parlamentario bat ere garatu dute tarteka, baina ez besaulkiak berotzeko helburuarekin. Oso ortodoxoak dira zentzu horretan: hauteskunde-markak sortzen dituzte hautagaitzak aurkezteko, eta, behin legebiltzarrera heltzen denean, bertako pribilegio parlamentarioak aprobetxatzen dituzte zentsura gainditu eta bozgorailu mediatikoa irabazteko. Euren helburua ez da hauteskundeak irabaztea, eta, beraz, inoiz ez dute beren ordezkartitzaren erabilera elektoralarik egiten, CPPk argi baitauka hauteskundeak Estatu burgesaren tresna bat direla. Legebiltzarra, kontrara, propaganda-tresna gisa ikusten dute, Estatuaren izaera erreakzionarioa agerian utzi eta programa sozialistarekin bateragarriak diren aldarrikapenak mahaigaineratzeko.

Bestalde, alderdiak bere historiari ere zor dio ospe onaren zati handi bat: komunistak izan ziren herrialdea Japoniar Inperioaren inbasioaren aurka gogorren defendatu zutenak, AEBen inperialismoaren aurka borrokatu zirenak eta atzerriko potentzien eraginaren aurrean independentzia lehenetsi zutenak. Gaur, bere fronte sozialaren jarduerak begi onez ikusten dute sektore aurrerakoi gehienek, gerrillarien arteko ezkontza homosexualak izaten dira eta gutxiengo musulmanaren artean ere babesa irabazten ari dira. Euren programa sektore liberal, nazionalista, erlijioso zein intelektualengana helarazteko ere lan politikoa egiten dute.

Bere ibilbide luzean zehar, CPPk negoziazio-prozesu ugari abiarazi ditu Filipinetako Gobernuarekin. Elkarrizketa horiek, ordea, ez dute zerikusirik izan, adibidez, Kolonbiako «bake-prozesuekin». Eredua guztiz bestelakoa da: batetik, Filipinetako komunistek ez dute nazioarteko organoen inolako injerentziarik onartzen, ezta gerrillaren armagabetzerik ere. Kolonbiako Gobernuak nahiz paramilitarrek azken urteetan langileen eta nekazarien mugimenduen aurkako sarraskiak areagotu dituzte, gerrillarien armagabetzea aprobetxatuz. CPPk lezioa hartu du halako prozesuetatik, eta, beraz, ez du NPAREN desmobilizazio militarra bultzatuko lukeen inolako kontzesiorik egiten. Kontrara, argi du bere estrategia Luzaroko Herri Gerran datzala. «Bake-elkarrizketa» deiturikoak abiatzen baditu, estrategia hori elikatzen duen taktika baten barruan orientatzen dira. Duterteren gobernuak aurrera daraman «drogen eta terrorismoaren aurkako gerra» deiturikoa langileria eta nekazariak zapaltzeko aitzakia bat besterik ez dela ikusarazten diote biztanleriari, eta horrek agerian uzten du antagonismo soziala: bakea nahi duen proletargoaren eta nekazari txiroen koalizio herrikoia ala enpresari eta lurjabeen Estatu hiltzailea, AEBen menpekoa. Elkarrizketak abiarazten diren uneetan, haiek nekazarien aurkako sarraskiak, multinazionalen espoliazioa eta lurjabeen despotismoa salatzen dituzte, eta bide batez, preso politikoen amnistia lortzeko indarrak ere bertan neurtzen dituzte. 2007an amnistia lortu zuten CPPko zein NPako 1.377 militantentzat. Mugimendu gerrillariaren tamaina garaikideari erreparatzearen, 2018an, NPAk bakarrik 5.600 kide inguru zituela kalkulatu da, 120 fronte baino gehiagotan banatuta. Logikoa den bezala, «erakunde terroristatzat» jo dute munduko erakunde terroristarik handienek, AEBek eta Europar Batasunak, alegia.

ONDORIOAK

Kapitalismoak demokraziaren bidez bakarrik gobernatzen duela gezur handi bat da. Historikoki soberan frogatuta geratu da Mendebaldeko zuzenbide estatuak ez direla egonkortu ongizate material maila jakin batzuk eskuratu arte, eta gaur egun ere langileria gehiengoak ez duela inolako eskubide politikorik mundu zabalean. Gaur eta hemen naturala eta eternala dirudien «bake sozial» delakoa guztiz eragozten zuen gerra sozial bat bizi izan da estatu modernoaren eta masa-mugimendu antagonista desberdinen artean. Kapitalak gatazka hori kudeatzeko lehenetsi duen gobernu-eredua diktadura irekia izan da; gaur egun ere eredu hori dago indarrean muga jakin batzuetatik kanpoko lurralde gehienetan.

Korrelatiboki, burgesia-aren nagusitasuna finkatzeko estrategikoa izan den klase ertainaren kontzeptua sozialki nagusitu zedin, arpilaketan, esplotazioan eta genozidioan oinarritutako helduleku material zehatzak behar izan dira. Ekoizpen industrialaren desplazamendua prozesu hori egonkortzeko fase bat gehiago baino ez da izaten ari. Formazio sozial kapitalistan, irabazi pribatuaren metaketa-logikan oinarritutako mundu mailako sistema batean, ez da posible lurralde jakin bateko masa zabalen behar materialak asetzea, ez bada beste nonbaiteko biztanleria mugarik gabe esplotatzen eta zapaltzen. Kontrakoa pentsatzea zentzugabea litzateke, egunean 16 orduz lan eginez, modu txarrean janez, higieen egokirik gabe eta etengabeko mehatxupear pertsonak pozik eta lasai bizi gaitezkeela pentsatzea bezalaxe. Munduko hamar lagunetik bat baldintza horietan bizi da gutxienez, eta, antolakuntza-maila irregularrekin bada ere, beti ez dio etsaiari hain erraz uzten bera zapaltzen. Erregeak banketeaz gozatzen jarraitzen du bitartean, baina badaki baionetaz eginiko tronu baten gainean eserita dagoela. ●

***Gaur eta hemen naturala eta eternala dirudien
«bake sozial» delakoa guztiz eragozten
zuen gerra sozial bat bizi izan da estatu
modernoan eta masa-mugimendu antagonista
desberdinen artean. Kapitalak gatazka
hori kudeatzeko lehenetsi duen gobernu-
eredua diktadura irekia izan da; gaur egun
ere eredu hori dago indarrean muga jakin
batzuetatik kanpoko lurralde gehienetan***





ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

(1) GEDAR LANGILE KAZETA. *Herioa ogibide*. (2020ko irailaren 27a). gedar.eus.

(2) GEDAR LANGILE KAZETA. *Argi-itzalak mapan* (2020ko irailaren 10a). gedar.eus

(3) Florencia Melo, M. *Los países donde trabajar es peligroso* (2023ko maiatzaren 3a). statista.com.

(4) *Promedio de horas de trabajo (Datos estadísticos de 2021)*. clockify.me

(5) Pasquali, M. *¿Cuántas horas por semana trabajan los latinoamericanos?* (2023ko apirilaren 12a). Statista.com.

(6) *Promedio de horas de trabajo (Datos estadísticos de 2021)*. clockify.me

(7) GEDAR LANGILE KAZETA. *Munduko biztanleriaren % 29k ez du kalitatezko ur edangarrira sarbiderik* (2023ko martxoaren 17a). gedar.eus.

(8) Unicef. *Trabajo infantil: estimaciones mundiales 2020, tendencias y el camino a seguir*. unicef.es

(9) *Confederación Sindical Internacional. Índice Global de los Derechos de la CSI 2022*. Brusela, 2022. globalrightsindex.org.

CSIk galdetegiak bidaltzen dizkie mundu osoko sindikatuiei, langileen eskubideen urraketek buruzko informazioa eman dezaten. Horiek urtero erregistratzen dira apiriletik martxora, eta egiaztatu egiten dira. Ondoren, herrialde bakoitza aztertzen da hitzarmenetatik eratorritako 97 adierazleri eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen jurisprudentziari dagokienez, langileen eskubideen urraketak legean eta praktikan islatuko dituen indize bat sortzeko.

(10) Público. *La impunidad arropa los asesinatos de 2.800 sindicalistas colombianos* (2013ko martxoaren 13a). publico.es.

(11) Telesur. *El 64 % de asesinatos de sindicalistas en el mundo se producen en Colombia* (2013ko maiatzak 9). telesurtv.net.

(12) *Confederación Sindical Internacional. Índice Global de los Derechos de la CSI 2020*. Brusela, 2020. globalrightsindex.org.

(13) *Confederación Sindical Internacional. Índice Global de los Derechos de la CSI 2022*. Brusela, 2022. globalrightsindex.org.

(14) Echeverri, J.A. *El país de los 3.240 sindicalistas asesinados* (2020ko irailak 21). ail.ens.org.co.

(15) GEDAR LANGILE KAZETA. *Filipinetako Alderdi Komunistako militanteen erailketak salatu dituzte* (2023ko apirilak 21). gedar.eus.

(16) GEDAR LANGILE KAZETA. *Indonesian hamar urterainoko kartzela-zigorrekin zigortuko dute lan politiko komunista* (2022ko abenduak 9). gedar.eus.

(17) Trinquier, R. *La Guerra moderna*. Librería del Ejército. Madril, 1963.

(18) Bevins, V. *El método Yakarta: La cruzada anticomunista y los asesinatos masivos que moldearon nuestro mundo*. Capitán Swing. Madril, 2021. 16. orr.

(19) *Ibidem*. 381-384. orr.

(20) Oppenheimer, J. (Zuzendaria). (2012). *The act of killing* [Filma]. Final Cut for Real, Arts and Humanities Research Council (AHRC), Radio (DR), Spring Films, Novaya Zemlya, Piraya Film.

(21) Soldadu batek gatazka armatu batean parte hartzen duen estreinako aldiari egiten dio erreferentzia. Erakunde kriminaletan sartu berri diren pertsonak beren nagusienganako fideltasuna erakusteko gauzatzen duten lehen hilketari ere horrela deitzen zaio.

(22) Bevins, V. *El método Yakarta: La cruzada anticomunista y los asesinatos masivos que moldearon nuestro mundo*. Capitán Swing. Madril, 2021. 14-15.orr.

(23) Llopis, A. *Introducción a la cuestión Naxalita* (2018ko abenduak 22). descifrandolaguerra.es.

(24) Marrades, A. *La insurgencia comunista en Filipinas* (2018ko azaroak 28). descifrandolaguerra.es.

Asoziazioa eta iraultza. Ekintza politikoaren beharraren inguruko ohar batzuk

Testua — **Mario Aguiriano**



Klase-borrokaren egungo tentsio eta potentzialitateen analisiak helburu izan behar du bere garapenean jauzi kualitatibo bat gauzatzeko beharrezko mediazioak identifikatzea. Bestela esanda: komunistek klase borrokari haren amaiera iraultzailearen ikuspegitik egiten diote aurre. Helburu horretatik bereizita, analisi oro kontenplazio forma soil bihurtzen da, ustez kanpokoa den objektu baten kontenplazio, soziologia akademikoak egiten dituzten saiakeretan gertatzen den eran.

Gutxik egin dezake egungo koiunturaren izaera tragikoaz zalan-tza, hitzaren zentzu hertsienean. Lehen begirada batean, kapitalismoaren erabateko krisi baten aurrean gaudela dirudi –kapitalismoa gure harreman sozial guztien multzo bezala ulertuta–. Hala ere, krisi horrek ez dakar berekin kapitalaren gainbehera politikoki antolatzeko gai den subjektu politiko baten existentzia. Errealitate horren aurrean, badago kapitalismoa era automatiko eta saihestezin batean eroriko delako ameskerietan galtzen denik, langile-klasearen agentzia iraultzailearen mediazioaren inolako beharrik izango ez lukeen amiltze baten ameskerian, hain zuzen. Beste batzuek, kontrara, nahiago dute orainaldiaren baldintza objektiboetatik bereizitako borondate iraultzaile abstraktu bati dei egin.

Zorrotz analizatuta, bi ikuspegi horiek berdin dira abstraktuak. Oinarrian duten akatsa bera da: elkarrengandik bereizten dituzte kapitalismoaren dinamikak eta klase-borrokaren garapena, baita egitura eta agentzia elkarrengandik ere, eta subjektu iraultzaile antolatuturik ez egotea auzi subjektibo hutsei, gabezia ideologikoei edo borondate ezari lotzen diete. Horixe bera da marxismo-leninismo zaharkitu jakin baten kasua. Bestalde, horren kontrako akatsa litzateke auzi subjektiboari entzungor egitea, eta, hala, eboluzionismo batean erortzea (ikuspegi indargabea). Emaizta, ezinbestez, boluntarismoaren eta fatalismoaren bekatu bikietan erortzea da.

Bada beste posizio bat, ustez horien bien tarteko bide moduan agertzen dena, baina berdin dena indargabea: orainaldiko mugak gainditu ezineko muga bilakatzen dituen posizioa. Hori ohikoa izaten da errealismoari uko egite hori ezkutatu, eta indar-korrelazioa darabiltenen artean errealtatearen aurrean otzan agertzea justifikatzeko argudio gisa. Horrela, estatuaren sindikatueta edo Erreformaren Alderdiaren espresio ezkerkoietan parte hartzea justifikatzen dute, ustez «saihestezinak» direla argudiatuta.

Berriro ere, posizio horren bestea osatuko luke-te muga horiei entzungor egin, eta, are, haiek bertute bilakatzen dituztenak, ezintasuna potentzialtasunez jantziz eta gaitasun politiko falta bertutearen maskarapean ezkutatuz. Talde horretan koka ditza-kegu «autonomia» faltsuak, haien kolektibo isola-tuaren independentzia formal hutsa helburu duten autonomia desklasatuak.

Lerro orokorretan, bere proiektu politikoaren inpotentziaren aurreanitsu agertzen den horrek, bere praktika arrazionalki ebaluatzeari ezetz esaten dion horrek, autokritikari ihes egin eta erabateko porrot baten sintomak eta formak garaipenaren ikur bezala saltzen saiatzen den horrek, arerio kontsideratua behar du izan. Kritikak gupidagabea izan behar du porrot egin duten formuletan erortzen direnekin zein alternatiba faltsuak eraikitzen dituztenekin, biek ala biek historiaren pisu hila osatzen baitute.

Errealitatea ez da eztitu behar, baina errealtatearen gordintasunak ezin du kontenplazio fatalistan berrerortzeko aitzakia izan. Hau da, zentzu oinarritzokoean –eta horrek errealtatea bere gaindipenaren ikuspegitik analizatzeak dakar–, era batean edo bestean, orainaldiko zailtasunak minimizatzen dituen zein zailtasun horiek gaindiezineko oztopo bilakatzen dituen kontzientzia faltsuaren parte da. Gure abiapuntua, hortaz, langile-klasearen programa iraultzailearen gaur eguneko inpotentzia erabatekoa izan behar da. Egund, proletalgora politikoki deskonposatuta dago. Ez da botere independentea, programa eta helburu bereziak dituen alderdi historiko bat, gainontzeko klase sozialen programa eta helburuek menderatu ezin dutena. Eta, hala ere, errebolta biderkatzen ari dira, Frantziatik Txilera, Sri Lankatik Iranera, arrakalatzen ari den mundu burgesaren erakusle. Istiluak eta errebolta espontaneoak orokortzen ari dira, eta, zenbait egunez edo astez indarrez plazaratu ondoren, itzali egiten dira. Haien aurrean, Erreformaren Alderdiak errepresioaren eta kooptazioaren indar bateratua baliatzen du maisutasunez. Errebolta hori bere muga propioen preso geratzen eta Estatuaren indarrek (gero eta indar autoritarioagoak) aurre egiten diotelarik agorpen-zantzuak adierazten hasten den unean, burgesia alderdiek joko-ze-laiko jokalaria bakar moduan aurkezten dute beren burua –alderdi horiek hasiera-hasieratik mutilatu dituzte haien eskakizunak, egungo gauzen ordenera egokitzeko asmoz–.

*Kritikak gupidagabea
izan behar du porrot
egin duten formuletan
erortzen direnekin zein
alternatiba faltsuak
eraikitzen dituztenekin,
biek ala biek historiaren
pisu hila osatzen baitute*

***Goragoko ordena sozial bat
eraikitzeko posibilitate objektiboa
ekintza politikoak kontraesan
horretan gauzatu dezakeen
bitartekaritzan oinarritzen da;
ordena sozial bat, zeinak, ekoizle
askeen asoziazioaren kontrolpean,
aberastasuna dauden beharren
arabera ekoitziko baitu, eta
aberastasun horren neurria giza
gaitasunen garapen osorako
sozialki erabilgarri dagoen denbora
sozialean aurkituko baitu***



Baina miopia politikoak baino ez gaitzake esperientzia horiek erabat mespretxatzera eramanez. Bere porrota azpimarratzearekin konformatzen den horrek ez du ulertzen esperientzia horien balioa eta porrota bereizezinak direla, haren potentzialtasun nagusia haren muga propioak ageriko egitean aurkitzen dela. Izan ere, esperientzia horiek, ordena sozial burgesaren arrakala gero eta ugariagoak progresiboki erakustarazteaz gain, antolakuntza politikoaren beharrezkotasuna ikusarazten dute.

Beharrezkotasun hori oinarritzeko eta hartara orainaldiko zein tendentziak garamatzaten adierazterako, komeni da zirriborro historiko bat egiteko tarte hartzea. Zentzu batean, badirudi gure testuinguruak antzekotasunak dituela 1848. urtearen aurreko Europako testuinguruarekin, non politikoki heldu gabeko proletalgoa bere dominazioan oinarritutako mundu horren aurka zutitzen hasi zen, forma kaotikoan lehendabizi ⁽¹⁾. Haien borroka burgesiaren programaren menpean jartzea izan zen emaitza –burgesiak Antzinako Erregimeneko indarren aurka botere politikoa konkistatzea zuen helburu-. Horrela, proletalgoaren helburuak, eta eginkizunak –halabeharrez nazioartekoak– burgesia nazionalen proiektuen menpean gelditu ziren, ekoizpen-harreman kapitalistak mundu-mailan oraindik hedatzen ari ziren aldi historiko hartan. Proletalgo hori sortze-prozesuan zegoen, eta orokorki hiriko lantegi txikietako artisauez osatua eta nabarmen atomizatua zegoen. Europa osoan Ingalaterrak baino ez zuen garapen industrial minimoki azpimarragarria. Komunisten Liga koituntura horri erantzuteko jaio zen, baina denbora gutxira disolbatu zen, indar iraultzaileen porrotaren ondorioz.

48ko iraultzek proletalgoaren eta burgesiaren arteko interesen antagonismoa azalarazi zuten. *Luis Bonaparteren Brumairearen 18a* liburuko esaldi ezagun batzuetan, Marxek adierazten du nola, une erabakigarria heltzean, «klase eta alderdi guztiek bat egin zuten ordenaren alderdian klase proletalgoaren aurka, anarkiaren, sozialismoaren eta komunismoaren alderdia osatzen baitzuten» ⁽²⁾. Ordenaren alderdia garaile irten zen Frantzian eta Europa osoan.

Marxek eta bere jarraitzaileek 1848tik ateratako irakaspena langile-klasearen *ekintza politikoaren* beharrezkotasuna izan zen; ideia hori izango zuen 16 urte beranduago etorriko zen Lehen Internazionalaren sorrerak oinarrian ⁽³⁾. Komunismoaren alderdiak forma politiko definitu bat hartu behar zuen, eta langile kolektiboaren antolakuntza- eta zuzendaritza-organo bilakatu. Mende erdi inguru beharko zuen Alderdiak bere formarik bukatuena lortzeko; hain zuzen, Gerra Handian sozialdemokraziagandik bereizi zenean etorri zen une hori. Irakaspen hori, itxuraz antzinakoa, funtsezkoa da orainaldirako ere. Bere gaurkotzean aurkitzen da basakeriarekiko alternatiba gisa sozialismoak izango duen etorkizunaren giltza.

Nola ez, gaurkotzea ez datza mugimendu erreala ideal abstraktu batera kateatzean, baizik eta mugimendu hori bere bukaera iraultzaileantz bultzatzeko saiakeran. Horretarako, beharrezkoa da ekoizpen-harreman kapitalisten izaera anakroniko gorakorra ezaugarri nagusi duen testuinguru historikoari aurre egitea.

Anakronismo hori ez da ausazko egitate bat; kontrara, harreman horien kontraesan propioetatik eratortzen da. Ekoizpen-harreman kapitalistak lan bizidunaren esplotazioan oinarritzen dira, baina ezin dute saihestu lan horrek ekoizpenean duen papera progresiboki txikiagotzea. Balioaren legeak berak, produktu bakoitzaren balioa bera ekoizteko beharrezko lan denborak zehaztu behar duela dioen horrek, ezin dio iskin egin aurrerapen teknologiko berriak sartzearen bitartez merkantzia bakoitzean gehitutako lan denbora murrizteko konpultsioari. Kapitalak ez dio akumulatzeari uzten, baina, prozesu horretan bertan, alboratu egiten du akumulazioa posible egiten duen faktore bakarra (gainbalioa ekoizten duena izaki): lan biziduna. Tendentzia kontraesankor horren erakusgarri da kapitalak gero eta gainmetaketa handiagoa izatea, eta, haren ondorioz, irabazi-tasak behera egitea. Gainazal ekonomikoan krisialdi puntual bezala plazaratzen diren horiek ez dira harreman sozial kapitalisten krisi sakonaren espresioak besterik. Aberastasunaren forma kapitalistaren (balioa) beraren krisi bat da, bere neurtzailea –sozialki beharrezko lan denbora– zaharkitua gelditzen ari den heinean ekoizpen-indarren egungo testuinguruaren aurrean, non lan biziduna gero eta erredundanteagoa bilakatzen ari den. Goragoko ordena sozial bat eraikitzekeko posibilitate objektiboa ekintza politikoak kontraesan horretan gauzatu dezakeen bitartekaritzan oinarritzen da; ordena sozial bat, zeinak, ekoizle askeen asoziazioaren kontrolpean, aberastasuna dauden beharren arabera ekoiztiko baitu, eta aberastasun horren neurria giza gaitasunen garapen osorako sozialki erabilgarri dagoen denbora sozialean aurkituko baitu.

Buelta gaitezen edozein kasutan orainaldiaren ezaugarri nagusietara. Marxek «Akumulazioaren Lege Orokor» ⁽⁴⁾ izendatutako tendentzia historikoaren garapenak bide ematen dio kontraesan hazkor bati, kapitalean gorpuztutako indar sozialaren potentzialtasunen hazkundearen eta gero eta era garbiagoan soberan dagoen lan bizidunaren artekoa. Industria handiaren –kapitalak lana subsumitzen duen eta zientzia eta teknologia indar produktibo bihurtzen diren espazioa– garapenaren ⁽⁵⁾ beste aldeak akumulazioaren kontraesanak gordintzea da, eta horrek lan hilak lan biziduna ordezkatzeko dakar. Horren eraginez, gero eta handiagoa da langabeziaren eta azpienplegu forma askoren artean noraezean dabiltzan funtziorik gabeko desjabetuen masa. Horrela, neurrigabeko proletalgo informal bat finkatzen da, lan-indarra pertsonifikatzen duena, eta, bizirauteko soldatarekiko (zuzena edo zeharkakoa) dependentzia izaten jarraitzen duen arren, lanarekiko lotura gero eta ezegonkorragoa duena; oro har hirugarren sektoreko lan ez produktiboen forma hartzen du. Bere ekintza politikorako forma espontaneo greban baino gehiago istiluan aurkitzen duen proletalgo informal hori ⁽⁶⁾ da gure garaiko errebolta handien protagonista. Sektore hori hazten doan bitartean, gero eta gehiago zatikatzen da langile kolektiboa nazioartean ⁽⁷⁾, eta horren emaitza berehalakoena langile-klaseak botere lokala ezartzeko gero eta ezintasun handiagoa izatea da (kontrakoa gertatzen zen beste garai batzuetan; fabrika konkretu bateko greba batek berehalako eragina zuen mundu mailako ekonomian, Detroitko General Motorseko edo Bartzelonako SEATEko grebekin gertatu zen moduan).

Arestian aipatutako faktoreek –langile kolektiboaren nazioarteko zatikatzea, egiturazko langabeziaren eta azpienpleguaren hazkundera, zerbitzuen sektorearen gorakada– mesede egin diote langile klasearen desartikulazio sozial eta politikoari. Horrelako testuinguru baten aurrean, badago bide erreformistaren aldeko apustua egitearen absolutuki beharrezkoa dela dioenik. Ikuspuntu horren arabera, hobekuntza gradualak lortzearen eta minimoen programa bat adostearen inguruko antolakuntzak baino ezin du klasea politikoki berrakibatatu, hau da, antolakunde erreformista handien eta «bloke demokratikoen» inguruan egituratutakoak. Proiektu hori bi poloren artean mugituko litzateke: batean legoke lan-indarraren salerosketabaldintzak hobetzearen aldeko borroka sindikala (zuzeneko soldataren eta lan baldintzen hobekuntza), eta, bestean, ondasun eta zerbitzu publikoen formako (zeharkako soldata) produktu sozialaren birbanaketaren aldeko borroka parlamentarioa. Arestian deskribatutako lanaren krisia tarteko, bigarren alor hori gailenduko da halaberrez. Horixe da Erreformaren Alderdiaren ezker hegalarren proiektu ekonomikoaren funtsa, zeinaren parte diren, sarri horretaz jabetu gabe, ustezko «antikapitalista» asko.

Posizio horren defendatzaileek gustuko izaten dute hori errealismo soilez mozorratzea, argudiatuz bera dela gaur eta orain dugun aukera posible bakarra, eta, beraz, zehaztugabeko etorkizun batean iraultza posible egiteko bide bakarra. Haatik, zehaztugabetasun horrek oinarritzko akats bat ezkutatzen du. Berez, soldataren aldeko borroka estrategia erreformistan kokatuta, klase-harremana betiereko bihurtzeko baino ez baita gai ⁽⁸⁾, hura abolitu beharrean. Klase esplotatuaren baldintzak hobetzen saiatzen dira, ez gainontzeko klaseekin batera desagerrarazten. Bestela esanda: ez da existitzen erreformen aldeko borrokaren eta klase-harremanaren abolizioaren helburu horren arteko lotura sendorik, ez da esplizitu egiten nola bihur daitekeen soldataren aldeko borroka (klase-borroka mugimenduan den kontraesan moduan) soldataren *aurkako* borroka. Baina komuniston egin beharra hori da beren-beregi: purutasun indarge batean babesteko helburuz soldataren aldeko borrokari uko egin beharrean, borroka hori soldata-harremanaren abolizio bilaka dadin beharrezkoak diren mediazioak ezarri behar ditugu.

***Purutasun indarge
batean babesteko
helburuz soldataren
aldeko borrokari
uko egin beharrean,
beharrezkoak diren
mediazioak ezarri behar
ditugu borroka hori
soldata-harremanaren
abolizio bilaka dadin***

Marxek azpimarratutako ekintza politikoaren beharrak ezin du ekintza independentea beste ezer izan, eta derrigorrez joan behar du Alderdi propio baten eraikuntzaren eskutik

Noski, kritikatzan ari naizen posizio honetako asko kapitalaren morroiak besterik ez dira, edo obreristak, askapenaren helburua ortzi-mugatik desagertutzat eman eta hobekuntza partzialen aldeko borroka soilera murriztu, eta beraien esplotazioan oinarrituta eraikitako mundu batean negoziatzeko posizio hobe bat konkistatu nahian dabilzanak. Alabaina, beste batzuek asmo zintzoak dituztela sinetsi nahiko nuke. Horregatik, posizio horren eta kapitalaren gaindipena helburu duen proiektuaren arteko bateraezintasuna azaltzen saiatuko naiz, eta, gainera, argudiatzen saiatuko naiz politika «behekoen» izenean egin arren («proletalgo» hitzarentzako eufemismoa), klase eduki oso zehatza duela (eta inolaz ere ez proletarioa).

Lerro orokorretan, proiektu horren arazo bistakoa Kautsky eta lehen ortodoxia sozialdemokrataren akats zaharra errepikatzea da: mediazio koherenterik ez egotea bitartekoen eta helburuen artean, taktika erreformista baten eta azken helburu nabarmen iraultzaile baten artean ⁽⁹⁾. Ondorioz, azken helburua ideologia huts bilakatzen da, gaur egungo menderakuntza justifikatzeko estalki bat. Horren ondorio paradoxikoa da defendatzen dutela kapitala bere buruarengandik salbatzea dela kapitala gainditzeko aurrebaldintza: langile-klasearen bizi-baldintzen hobekuntza posible egingo duen akumulazio-bide «osasuntsu» bat aurkitu behar dela. Hain justu, hori da Green New Deal proiektuaren oinarrian dagoen ideia ⁽¹⁰⁾.

Soilik antolakuntza iraultzaileak gauzatu dezake bitartekoen eta helburuen arteko halako mediaziorik. Eta, hala ere, aipatutako proiektu horrek beren burua iraultzaileztat jotzen duten indarrak Erreformaren Alderdian sartzearen alde egiten du. Azken finean, independentzia politikoaren helburua klase dependentzia politikoki zigortzeko premiaren aldeko baieztapen bilakatzen dute. Horrek nahasmenetan handienera garamatza derrigor: orainaldiko indarrak sindikatu korporatiboaren eta kretinismo parlamentarioaren tranpa bikietarantz bideratzea.

Marxek azpimarratutako ekintza politikoaren beharrak ezin du ekintza independentea beste ezer izan, eta derrigorrez joan behar du Alderdi propio baten eraikuntzaren eskutik. Bertan, sozialismoa lortzeko helburuaren konkretizazioa indar sozial moduan antolatutako kontzientzia kolektibo bat izan behar da. Esan gabe doa Alderdi horrek klasearen borondate historiko konkretuari erantzuteko gaitasuna izango duen proletalgo iraultzailearen alderdia behar duela izan, ez iluminatuen sekta bat, kanpo-abangoardia baten formakoa. Haren eraikuntza ezingo da bukatutzat eman helburu horri erantzuteko gai den arte, hau da, ofentsiba-aldi batean masen babes zabala lortzen duen arte. Hala ere, hori da gure gaurko ekintzek klaserik gabeko gizartearen azken helburu horrekin koherente izateko modu bakarra. Beharrezkoa da, beraz, orainaldiko energia denak –gure borroka prozesuen antolakuntza eta gure antolakuntza kolektiboa– norabide estrategiko horretan jartzea, mediazio horrek baino ez baitu orainaldiko borroka inmediatek norabide efektiboa izatea ahalbidetuko. Soilik era horretan eman dezakete klase-borroka gaur egungo formek artikularen hasieran aipatutako jauzi kualitatiboa: eginahalak estrategia bateratu baten eta gaitasunen antolakuntza zentralizatuaren inguruan metatuz, mugimendu politiko errealearen sintesi moduan jarduteko ahalmena izango duen antolakuntzaren inguruan, hain zuzen.



Kontrako kasuan, politikagintza parlamentarioaren kontraesanen erortzen jarraitzera kondenatuta egoten jarraituko dugu, bereizita kanalizatzen jarraituko baitugu langileon aldarrikapenak eta haiek inposatzeko gaitasuna izango duen botere sozial baten eraikuntza ⁽¹¹⁾. Edo, edozein kasutan, horren ifrentzuan dagoen tradeunionismoaren akats klasikoetan eroriko ginateke. Bi kasu horietan, langile-klasearen birbanaketa aldarriek klasearen esplotazioa indartzearen aldeko inperatibo kontraesankorraren forma hartzen dute, haien ustez bide bakarra banatu beharreko pastela handitzea dela baita ⁽¹²⁾. Horixe izan zen politikagintza sozialdemokrataren muina Estatu sozialaren garaietan. Proiektu horrek, ordea, behar-beharrezkoa du kapitalismoak lortzen gero eta zailtasun handiagoak dituen zerbait: akumulazioaren zabalpena. Gaur egun, erabateko krisi baten aurrean, non soldatak arpilatzea aurkezten baitiguten esplotazio-tasaren hazkundera errentagarritasuna mantentzeko era bakar bezala, halako aldarrikapenen eduki erreala oso bestelakoa da. Are, birbanaketa-politika estatuen bitartez, proletarioaren bizi-baldintzak baino gehiago, klase ertainaren bizi-baldintzak –desegiten ari den klasea– bermatzen saiatzen da, kapitalaren ordenaren beharrezko euskarri den heinean. Gainera, proiektu politiko parlamentarioa den heinean, estatuko marko batera mugatzen da halabeharrez, eta horrek ezinezko bilakatzen du kapitalaren botere globalaren erroari erasotzea.

Ez dugu berriz landuko zein diren sozialismo-ranzko bide parlamentarioaren estrategia erreformistaren akatsak eta hark nolako izaera kontrairaultzailea duen ⁽¹³⁾, baina aipatzekoa da proiektu horrek bi zailtasun gehigarri dituela gaur. Alde batetik, noraez sozialdemokrata klasikoaz aparte (sozialdemokraziaren ustez etsaiaren boterearen muina Parlamentuan edo Estatuan dago, eta ez akumulazio globalaren prozesuan ⁽¹⁴⁾), parlamentu eta estatu-gobernuak boterea galtzen ari dira, eta banku zentralak eta nazioarteko erregulazio-agentziak irabazten; hain justu, agente horiek arlo publiko eta pribatuaren artean airoso mugitzeko gai dira, eta konstituzionalismo liberalaren hertsadurak saihesteko ere bai ⁽¹⁵⁾. Alabaina, badago funtsezkoagoa den arazo bat. Estatuaren jardunak gaur egun hiru dinamika paraleloren ondorio den dilema konponezin bati aurre egin behar dio: geldialdi ekonomikoa (gainmetaketa), soberan dagoen biztanleriaren hazkundera eta krisi ekologikoa ⁽¹⁶⁾. Dilema hori benetan da konponezina ekoizpen-harreman kapitalisten markoan: hazkunde ekonomikoa bultzatzearen ondorioz (inbertsioa akuilatuz eta produktibitatea handituz), krisi klimatikoa areagotzen da eta milioika langile ez dira beharrezkoak; lanpostuak sortzeko plan publikoek kapitalaren gainmetaketa azeleratu egiten dute, produktiboak ez diren kapitalak artifiziaiki sostengatzen eta estatu-gastua handitzen dituzten heinean, baina ez dute auzi ekologikoa kudeatzeko gaitasunik eskuratzen; teknologia berdeen alorrean egindako inbertsioak laster egiten du topo gainmetaketaren eta lan biziduna lan merkatutik kanporatzearen arazoekin; eta krisi klimatikoaren aurka hartu beharreko neurri zorrotzek talka egiten dute kapitalaren balorizaziorako aginduekin. Ondorioz, bide estatul-parlamentarioa, gaur, bide hila da. Estatu burgesaren kudeaketak ez du emantzipazioa ekarriko, ez eta klasea politikoki berrartikulatzeko balioko ere.

Orainaldiari erantzungo dion langile-klasearen estrategia iraultzaile bat berrosatzeak porrot egin duten proiektu horiek alboratzea galdegiten du. Gaur egun, beharrezkoa da Alderdiaren berre-raikuntza mugimendu-forma garatzea, klasea era progresiboan artikulatuz programa komunistaren pean ⁽¹⁷⁾. Mugimendu horretan, non klasea klasearentzat antolatzen den eta kontzienteki eta kolektiboki bere gain hartzen dituen orainaldiko kontraesan eta eginkizunak, zertzen da jauzi kualitatiboa azken hamarkadetako borroken muga aldean. Horrela, mugimendu horren garapenak bide eman go die forma organizatibo eta kontzientzia forma gero eta altuagoei eta totalizatzaileagoei. Aurreko eztabaidarekin loturan, badaude erabakigarri moduan inposatzen zaizkigun zenbait puntu. Ez daukat, noski, zehaztasunetan sartzeko asmorik, baina orain arte garatutako analisiaren zenbait ondorio azpimarratu nahiko nituzke.

Aipatu nahi dudana lehen puntua internazionalismo hertsia da; izan ere, haren beharra, politikagintza komunistarako zentrala eta saihestezina, bereziki premiazkia da gaur. Langileen egungo zatiketa handia denez, botere sozial izateko ere inoiz ez bezalako antolakuntza-maila behar da, eta horrek halabeharrez gainditzeko muga nazionalak ⁽¹⁸⁾. Alderdi Komunistak ezinbestean izan behar du nazioartekoa, eta haren eraikuntza-prozesuak ezinbestean eskatzen du proletalgoa nazioartean gero eta eskala zabalagoetan antolatzea. Gogoratu behar da langile-klaseak *talde moduan* ez duela ekoizpen soziala kontrol kontziente eta kolektibo baten menpean jartzeko moduko gaitasun potentzialik bildu gaurdaino, eta, hala ere, inoiz ez dela agian subjektu atomizatu moduan den bezain indargabea izan. Alderdia, zentzu hertsian, langileria kolektibo kontziente baina ez da. Soilik haren inguruan egituratutako lan sozialaren organo kontziente moduan bilaka daiteke langile indibidualen potentzia zientifiko gero eta handiagoa ekoizpena erabat sozializatzeko bitarteko.

Bigarren aipatu nahiko nukeen puntua da zein beharrezkoa den proletalgo informal masibo hori –politikoki disruptiboa izan arren, ez da gai berehalakoan botere sozial nabarmen bat osatzeko, ekoizpenarekin duen posizioa tarteko– ekoizpenarekin lotura egonkorragoa duten langile produktiboekin konektatzea. Hori da bide bakarra istilua eta greba estrategia bateratu bereko taktika osagarri bilakatzeko.

Hirugarren puntua, zentro inperialistaren kasuan garrantzia berezia duena, klase ertaineko sektore proletarizatuak programa politiko proletario baten pean jartzea da; horrekin batera, suntsitu egin beharko lirake sektore horrek egiten dituen saiakerak ekintza politikoa pribilegio galduak berreskuratzeko tresna bihurtzeko –pribilegio horien promesetan hazitakoa da klase ertaina–. Horrek talde horren determinazio sozialen analisi zorrotza egitea galdegiten du ⁽¹⁹⁾; kontuan hartu behar da klase ertainaren prestakuntzarako gaitasunek eta erradikaltasun potentzialak indibidualismorako eta aspirazionismorako joera ekar dezaketela, eta, horrez gain, klase ertainak etengabe daramala gainean Erreformaren Alderdiaren ezker hegala eskaintzen dizkion prebendengatik klasearen proiektu kolektiboa uzteko tentazioaren zama. Zentzu horretan, indibidualismoaren ideologiari aurre egiteko, ezinbesteko bitartekoak dira diziplina kontziente eta autoritatearen eta lan militantearen antolakuntza arrazionala. Merkantziaren fetixismoaren estalkia urratzeko –estalki horrek aurrez aurre jartzen ditu norbanako pribatua eta kanpo izate batean fundatutako gizarte bat ⁽²⁰⁾–, beharrezkoa da norbanakoen lana kontzienteki antolatzea, eta norbanako bakoitza lan sozialaren organo moduan agerraraztea. Era horretan, eraikuntza prozesuan den Alderdiak aurreirudikatu egiten du soilik kapitalaren abolizio erabatekoaz burutu daitekeen hori.



**Soilik era horretan eman dezakete
klase-borrokaren gaur egungo
formek artikuluaaren hasieran
aipatutako jauzi kualitatiboa:
eginahalak estrategia bateratu
baten eta gaitasunen antolakuntza
zentralizatuaren inguruan metatuz,
mugimendu politiko errearen
sintesi moduan jarduteko ahalmena
izango duen antolakuntzaren
inguruan, hain zuzen**

**Alderdia, zentzu hertsian,
langileriaren kolektibo
kontzientea baino ez da. Soilik
haren inguruan egituratutako
lan sozialaren organo kontziente
moduan bilaka daiteke langile
indibidualen potentzia zientifiko
gero eta handiagoa ekoizpena
erabat sozializatzeko bitarteko**



Klasea klabe iraultzailetan berreraikitzeke bide bakarra bitartekaritza politikoan aurkitzen da

Laugarren puntua klasearen sektore aurrera-tuenak identifikatu beharra da; hain justu, sektore horiek gidari izan ahalko dira klasearen berreraikuntza klabe komunistan aurrera eramateko prozesuan. Egun, pisuzko arrazoiak daude paper hori gazteria proletarioarena dela esateko, faktore erabakigarriak baitira hauek: sektore hori modu nabarmenean izatea desjabetua; krisi etengabearen testuinguru batean sozializatu izana; klase ertainen gizartearen gainbehera, baita haren eskutik doan klase antagonismoaren neutralizazioarena ere (lotuta doa maila sozialez igotzeko eta egonkortasuna izateko promesekin); eta aurrean duten ortzi-muga, ezaugarri nagusi miseria eta erredundantzia soziala dituen. Zorrotzak izanda, hori ez da anomalia historiko bat. Izan ere, gazteria proletarioa eragile sozial erabakigarria izan zer Gerra Handian sozialdemokraziarekin hausten. Nabarmen azeleratu zituen mundu burgesaren krisia eta ziklo iraultzaile baten hasiera, batetik, Alderdi Sozialdemokraten ⁽²¹⁾ erreformismoaren aurka zutitzen ari zen langile belaunaldi baten jardun politikoak, eta, bestetik, ondoren belaunaldi hori bera gerra inperialistaren giza haragia txikitzeke makinara masan jaurti izanak. Balio beza datu moduan: Alderdi Boltxebikearen Seigarren Kongresuko (1917) partaideen batatz besteko adina 29 urtekoa zen ⁽²²⁾.

Bosgarren, azpimarratu nahiko nuke zein garrantzitsua den ekoizpeneko sektore estrategikoak identifikatzea, hau da, antolakuntza maila txikienaz ere eraren bateko botere soziala gauzatu dezaketen horiek. Egun, rol hori sektore logistikoena da nabarmen (gutxienez era gorakor batean desindustrializatutako zentro inperialistan), merkantzien nazioarteko fluxuak neurri batean haien jardunaren menpe baitaude ⁽²³⁾. Haiekin klasearen sektore zabalagoek babestutako borroka taktikoak planteatuz gero, indar korrelazioa zorrotz neurtuz, sektore horietatik abiatu daitezkeen gatazkek zabalpen-efektua izan dezakete langileen botere sozialaren berreraikuntzan. Aurretik aipatutako puntuetan gertatu bezala, hemen ere antolakuntza politikoak egiten du bitartekaritza soziala boterearen eraikuntza hori etorkizuneko ofentsibak eta ekoizpen soziala norbanako elkarretaratuen talde-kontrolaren menpe jartzeak definitutako proiektu baten baitan kokatzeko.

Amaitzeko, zentraltasuna duen auzi bat azpimarratzea gustatuko litzaidake: klasea klabe iraultzailetan berreraikitzeke bide bakarra bitartekaritza politikoan aurkitzen da. Posible da orain dela ehun urte sozialistek amestu izana sozialismoaren gidari izango zen klasea etengabeko hazkundera zuen proletario industrialaren inguruan bateratuko zela espotaneoki. Egun, klasea mila puskatan zatituta eta akumulazio dinamikaren agortuta dagoen honetan, ideia hori erabat zentzugabea da. Klasea berreraikitzeke prozesu orok artifizialtasun maila handia beharko du, baita elkarren artean oso desberdinak diren piezak elkarri jostea ere, askotariko bitarteko bidez ⁽²⁴⁾. Espero dut behintzat zenbait argudio esanguratsu eman izana eraikuntza hori efektiboa izan dadin erdigunean antolakuntza politikoa jarri beharraren alde. ●

ERREFERENTZIAK

- 1.** 48ko iraultzen analisi zehatzago baterako ikus, Clark, Christopher. *Revolutionary Spring. Fighting for a New World 1848-1849*, Penguin, Nueva York, 2023.
- 2.** Marx, Karl. *El 18 Brumario de Luis Bonaparte*, Fundación Federico Engels, Madril, 2003, 23. or. [aipuaren euskarazko itzulpena: *Luis Bonaparteren Brumairearen hemezortzia*, IGELA, Iruñea, 2023, 36.or.]
- 3.** Ikus Galcerán, Montserrat. *La invención del marxismo*, Traficantes de Sueños, Madril, 2023, 27-28. or.
- 4.** Marx, Karl. *EL Capital, Crítica de la economía política. Vol1. El proceso de producción del capital*, Siglo XXI, Madril, 2021, 703-806. or.
- 5.** Ibid, 447-588. or.
- 6.** Ikus Clover, Joshua. *Riot. Strike. Riot. A New Era of Uprisings*, Verso, Londres, 2019.
- 7.** Ikus Charnock, Greig eta Starosta, Guido (edk.). *The New International Division of Labour. Global Transformation and Uneven Development*, Palgrave, Londres, 2016.
- 8.** Clare Roberts, William. "Class in Theory, Class in Practice", *Crisis & Critique*, 10. bol, 1. zbk, 256-257. or.
- 9.** Puntu honen inguruan ikus Schorske, Carl E. *German Social Democracy, 1905-1917. The Development of the Great Schism*, Harvard University Press, Cambridge, 1983; Sassoon, Donald. *Cien años de socialismo*, Edhasa, Barcelona, 2001.
- 10.** Kritika bikain bat irakurtzeko, ikus Miasni. "En caso de incendio ¿Green New Deal?", *MarxXXI. Contra la socialdemocracia*, Contracultura, Madril, 2023, 195-212. or.
- 11.** Clarke, Simon. "Estado, lucha de clases y reproducción del capital" in *Marx, Marginalismo y Sociología Moderna*, Dos Cuadrados, Madril, 2023, 340. or.
- 12.** Ikus Clarke, Simon "Estado, lucha de clases..." 340-341. or. eta Mattick, Paul. "The Limits of Reform", *Marxism. The Last Refuge of the Bourgeoisie*, The Merlin Press, Londres, 1983, 186-195. or.
- 13.** Analisi sakonago baterako ikus AA.AA. *Marx XXI. Contra la socialdemocracia*, Contracultura, Madril, 2023n bildutako artikulua.
- 14.** Ikus Koltiza. "Konstruktibismoa eta klase politikoa", *Gedar*, 2019.
- 15.** Callinicos, Alex. *A New Age of Catastrophe*. Polity Press, Londres, 2023, 71-72. or.
- 16.** Auzi honen analisi xehea irakurtzeko, ikus Alami, Ilias; Copley, Jack; Moraitis, Alexis. "The 'Wicked Trinity' of Late Capitalism: Governing in an era of Stagnation, Surplus Humanity, and Environmental Breakdown", *Geoforum*, 2023, 1-13. or.
- 17.** Ikus Koltiza "Kontseilu Sozialisten artikulazioa eta estrategia sozialista", *Gedar*, 2021.
- 18.** Ikus Angry Workers, "Estrategia revolucionaria de la clase obrera para el siglo XXI – Parte 1", abwerten.noblogs.org.
- 19.** Nahiz eta ez natorren bat garrantzizko auzi teorikoetan eta bere tesi zentralekin, problematika honen inguruko analisi zorrotz bat aurki daiteke hemen: Evans, Dan. *A Nation of Shopkeepers. The Unstoppable Rise of the Petty-Bourgeoisie*, Repeater Bookes, Londres, 2023.
- 20.** Ikus, puntu honi buruz, Carrera, Juan Iñigo. *Usar críticamente el capital*, Ed. Imago Mundi, Buenos Aires, 2007.
- 21.** Ikus Schroske, Carl E. *German Social Democracy 1905-1917*.
- 22.** Ikus Davis, Mike. "Old Gods, New Enigmas: Notes on Revolutionary Agency", *Old Gods, New Enigmas. Marx's Lost Theory*, Verso, Londres & Nueva York, 2018.
- 23.** Ikus Vela, Corsino. *Capitalismo terminal. Anotaciones a la sociedad implosiva*, Traficantes de Sueños, Madril, 2018.
- 24.** Nahiz eta hemen garatu dugunaren oso perspektiba politiko batetik egindakoa izan, artifizialtasun hori zein beharrezkoa den azaltzen duen analisi xehea aurki daiteke hemen: Rodríguez, Emmanuel. "¿Cómo se hace una clase?" *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social*, Traficantes de Sueños, Madril, 2022, 393-421. or.

XX. mendearen azken laurdeneko krisia eta desindustrializazioa

Testua — **Unai Vicente**

Irudia — **Saraka**



7Oeko hamarkadako nazioarteko krisiaz geroztik, desindustrializazio-prozesu bat gertatu da European.

Testu honek prozesu hori aztertu nahi du, baita horren ostean, XX. mendearen amaierara bitartean, Espainiako Estatuan eta EAEn izan zen ekoizpen-aparatuen berregituraketa ere. Desindustrializazio-prozesua oraindik amaitu ez bada ere, geldialdi hori aztertu beharrekoa da, ulertzen saiatzeko, hain zuzen ere, zeintzuk izan ziren metaketa sostengatu zuten gako-faktoreak eta zer aldaketa nagusi gertatu ziren helburu hori lortzeko. Aldi berean, ondorio sozial eta politiko nagusiak jorratuko dira.



7 Oeko hamarkadan, krisian zegoen kapitalismo baten gaitzak azaleratu ziren zentro inperialistan; kapitalismo horren metaketa-mugak 60ko hamarkadaren amaieran hasi ziren agertzen. Gerraren ondoren Europan izan zen hazkunde mugagabea gainditu zuten elementu hauek: kapital finkoan egindako inbertsioek, energiaren kostuen igoera esanguratsuak, prozesu inflazionistak, eskariaren saturazio nazionalak eta lehia kapitalistaren hazkundeak. Horrek guztiak irabazi-tasa jaitea ekarri zuen. Gainera, une horretan industria handiaren inguruan antolatutako langile-mugimenduak erasoaldira jo zuen, langileen bizi-baldintzak hobetzea eskatuz.

Krisiaren kontra garai hartan zeuden politika keynesiarrek –eskaria eta kontsumoa sostengatzera bideratutakoak– inflazioa eta langabezia lagundu baino ez zuten egin, hazkunde produktibo urriko garai batean. Hala, proletalgoak uko egin zion bere bizi-baldintzek okerrera egiteari, eta burgesiak, era berean, irabazi gehiago emateari. Orduan, eskaria itotzera bideratutako politika batzuk ezarri ziren, soldaten aurkako oldarraldi baten bidez eta krisiak sortutako kostuak sozializatuz. Horren ondorioz, metaketa kapitalistaren aldeko esku-hartze masibo bat egin zuten estatuek, zeinak zailtasun batzuk erakusten zituen (Piqueras, 2015). Era berean, langileen presioari aurre egitea eta gainbalioaren tasa handitzea lehentasunezko premiak izan ziren burgesiarentzat. Europan, langile-mugimendua desegin egin zen indarkeriaren eta sindikalismo klasikoaren bidez; hala, kapitalaren errentagarritasuna bermatu zen proletalgoaren lan- eta bizi-baldintzak okertzearen truke.

Hala ere, ez zen lortu krisi aurreko hazkunde-tasak berdintzea. 80ko hamarkadaren erdialdean hobekuntza txikiak izan ziren arren, hobekuntza horiek arazo estrukturalak ekarri zituzten, hala nola eskariaren beherakada, soldata errearen geldialdiaren emaitza, eta gehiegizko industria-ahalmena. Estatuak ekoizpen-sektore nagusiei eusten eta haiek modernizatzen saiatu ziren, eta, aldiz, sekulako desindustrializazioa gertatu zen industria zaharkituetan espezializatutako Europako eskualdeetan. Kapitalak, berriz, irtenbide bat aurkitu zuen ekoizpena konposizio tekniko txikiagoko tokietara lekualdatuta. Horrek gainmetaketa murriztea eta eskulan kopurua handitzeko aukera ematen zuen. Egoera horrek industria-langileen soberakinen kopuru handiak sortu zituen Europan.

Geldirik zeuden soldaten eta langabezia-tasa altuen aurrean barne-merkatuak zuen ahultasuna konpentsatzeko, herrialde industrial nagusiek esportazioak handitu behar izan zituzten. Horrek lehia kapitalista eta gehiegizko ekoizpen-ahalmena handitu zituen, eta, hala, larriagotu egin zen merkatuen nazioarteko saturazioa, batik bat merkatu horretara Txina, Hego Korea, Asiako hego-ekialdeko herrialdeak eta India sartu zirenean. Herrialde horiek merkatu-kuota eskuratzea lortu zuten: lehenik, hazkunde-intentsitate txikiko eta, gero, teknologia ugariako ekoizpen-adarretan. Ekoizpenaren ordezkatzeko hori ondo baino hobeto islatzen duen datu bat da Mendebaldeko Europan ontzigintzan 1975ean hamahiru milioi tona ekoiztetik 2001ean lau besterik ez ekoiztera igaro zirela. Aldiz, Asiako ontzioletan, ekoizpena hamazazpi milioitik 26 milioi tonara igo zen (Alonso, 2013).

Eskaria itotzera bideratutako politika batzuk ezarri ziren, soldaten aurkako oldarraldi baten bidez eta krisiak sortutako kostuak sozializatuz

90eko hamarkadan, ekoizpen eta banaketa kapitalistak mundu mailako eskala lortu zuen. Horretarako, ordu-ra arte nagusitzen ziren kontrol- eta erregulazio-oztopoak hautsi behar izan ziren, eta, emaitza modura, ekonomia nabarmen liberalizatu zen. Nolanahi ere, beharrezkoak izaten jarraitu zuen Estatuak berak eta transferentzia publikoek kapitala egonkortzeko eta suspertzeko berme gisa zuten papera.

KRISI EKONOMIKO ETA POLITIKOA ESPAINIAKO ESTATUAN

70eko hamarkadan, Espainiako Estatuan aldi berean etorri ziren, alde batetik, metaketa-krisia eta, bestetik, frankismoaren ahultasun politikoa eta diktadorearen heriotza. Bi gertaera horiek funtsezkoak dira krisiaren garapena eta eragina ulertzeko, bai eta aztertzeke ere zer erabaki hartu ziren irabaziak bermatzen jarraitzeke okerrera zihoan ekoizpen-egituraren eta langile-mugimenduaren kemenaren aurrean.

50eko hamarkadaren amaieratik Espainiako ekonomiak hazkunde handia izan zuen arren, bazituen hainbat arazo ezkutuan; krisiarekin batera lehertu ziren. Industria-sektorea ondasun intentsiboen ekoizpenean espezializatuta zegoen, eta horrek energia-mendekotasuna eta herrialdeak falta zituen lehengai batzuekiko mendekotasuna eragin zituen, bai eta kapital-ondasunen eta makinaren inportazio masiboa ere. Gainera, ekoizpen-aparatua bi taldetan banatzen zen. Talde batean sektore estrategikoetan kokatutako enpresa handiak zeuden, eta, bestean, eduki teknologiko urriko enpresa txiki eta ertain andana. Bigarren talde horretakoek sortzen zuten merkatua, hain zuzen, oso babestua zen, eta nazioarteko lehiaren eragin txikia zuen.

70eko hamarkadaren hasieran, lehengaien prezioen lehen igoeren ondorioz, ekoizpen-baldintzak okertu egin ziren, langabeziaren eta inflazioaren hazkundeak islatu zuenez. Era berean, zerbitzuen sektoreko langile kopurua handitu egin zen, eta horrek industrian soberan zegoen eskulana lan-merkatutik kanporatzea apaldu zuen. Arazo horiei aurre egiteko, barne- eta kanpo-zorpetzea eta inflazioa handitu ziren, eta horrek langileek soldata altuagoak eskatzea eragin zuen.

1975. urtearen inguruan, nahiz eta krisia agerikoa izan, soldata errealek ez zioten hazteari utzi proletalgoaren indarrari esker, baita Estatu frankistak zilegitasuna galdu zuelako ere (krisiak ekoizpenetako inbertsioa jaitsi

zuen, eta handitu egin zuen gehiegizko ekoizpen-ahalmena). Estatu horrek burgesiari transferitu zizkion baliabide publikoak; horretarako, krisian zeuden enpresak nazionalizatu zituen Espainiako Industria Institutuaren bidez (INI, gaztelerazko sigletan), itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak eman zituen eta egoera baretzeko bestelako *ad hoc* neurri batzuk erabili zituen. Zorrra nabarmen handitu zuen horrek, eta prezioek behin betiko egin zuten gora.

Krisiaren aurreko doiketa nagusia 1977ko Moncloako Itunetan zehaztu zen. Itun horiek burgesiari errenta-eta moneta-politika gogorrek ezartzea ahalbidetu zioten, zeinek moteldu egin baitzuten inflazioa, soldatak prezioak baino azkarrago moteldu baitziren. Hori guztia «krisiaren aurreko elkartasuna» aldarrikatzen zuen diskurtso partekatu batean aurkeztu zen; horrela, etorkizuneko politiketarako oinarriak ezarri ziren. Ezarri zituzten oinarrien bidez, langileek beren gain hartuko zituzten krisiaren kostuak, demokrazia parlamentarioaren truke.

Baina, aurreneko geldialdi horretatik erabat sendatu gabe, 70eko hamarkadaren amaieran, Espainiako ekonomiak beste atzeraldi bati egin behar izan zion aurre. Industria-enpresek finantza arazo handiak zituzten, ekoizpen-ahalmena gaindimentsionatuta zegoen, eta merkatua gero eta lehiakorragoa zen. 1979ko Epe Ertaineko Plan Ekonomikoak lehen aldiz seinalatu zuen industria-birmoldaketaren beharra, eta 1980. eta 1982. urteen artean 11 sektore jarri ziren birmoldaketa-bidean, hala nola siderurgia integrala, altzairu bereziak, ontzīgintza eta ehun-gintza. Era berean, 1981eko ekainean, Birmoldaketa Legea argitaratu zen. Hala ere, esku-hartzeak finantza-arazoak konpontzera eta plantillak murriztearen bidez langile bakoitzeko produktibitatea handitzera bideratu ziren. Prozesu horretan berrikuntzetako bat birmoldaketa-prozesuan zeuden sozietateak sortzea izan zen, Aceriales kasu, zeina altzairu berezien sektoreko enpresa baitzen.

Krisiaren kolpeak arintzeko diru publikoa enpresetara transferitzeak eta langileek presio bidez lortutako prestazioek gastu handia ekarri zioten Estatuari. Patronalarekin eta sindikatuarekin batera, kostuak langileen gain jartzen saiatu zen Estatuak, soldata erreala txikituz eta lan-harremanak aldatu zituzten itun sozialen bidez (1980ko Langileen Estatutua); hala, gastuak murriztu eta langileen negoziazio-boterea mugatu nahi zuen. Hala, ekonomia are gehiago liberalizatu zen, eta atzerriko kapitalak bertako merkatuan zuen eragina handitu zuen.

**Hori guztia «krisiaren
aurreko elkartasuna»
aldarrikatzen zuen
diskurtso partekatu batean
aurkeztu zen; horrela,
etorkizuneko politiketarako
oinarriak ezarri ziren.
Ezarri zituzten oinarrien
bidez, langileek beren gain
hartuko zituzten krisiaren
kostuak, demokrazia
parlamentarioaren truke**

**Epe ertain eta luzera
kapitala metatzeko eta
enpresa-mozkin handiak
lortzeko oinarriak ezarri
ziren garai hartan, oinarri
zutenak ekonomiaren
liberalizazio handiagoa eta
eskulana erabiltzeko arauen
erregularizazio txikiagoa**

BIRMOLDAKETARI ETA BERRINDUSTRIALIZAZIOARI BURUZKO LEGEA ETA SPRIREN SORRERA

PSOEren gobernu berriak, 1982an hauteskundeak aise irabazi ondoren, doikuntza-programa bat eta hainbat erreforma ezarri zituen irabazi-tasa berrezartzeko. Epe laburrean, defizita kontrolatzeko, soldata errealak murrizten jarraitu zuen, eta moneta- eta zerga-politika murriztaileak aplikatu zituen. Ondorioz, 1982. eta 1985. urteen artean, soldatek BPGan zuten partaidetza % 53,2tik % 49,7ra jaitsi zen (González Calvet, 1991). Epe ertain eta luzera kapitala metatzeko eta enpresa-mozkin handiak lortzeko oinarriak ezarri ziren garai hartan, oinarri zutenak ekonomiaren liberalizazio handiagoa eta eskulana erabiltzeko arauen erregularizazio txikiagoa.

Aldiz, industria-sektorearen lehia-kortasuna lortzeko bitartekoa industria-birmoldaketa izan zen; hark krisian zeuden sektoreak berrantolatu, ekoizpen-ahalmenari dimentsio berri bat eman, enpresak onbideratu eta plantillak are gehiago murriztu nahi zituen. Funtsean, helburua lan-indarraren esplotazio-maila handitzea izan zen, batez ere atzerrikoak ziren inbertsioak erakartzeko. Gobernuaren politikak 1984ko Birmoldaketari eta Berrindustrializazioari buruzko Legean islatu ziren, 1983ko *Berrindustrializazioaren Liburu Zurian* ezarritako jarraibideetan oinarritua.



Birmoldaketaren nukleo gogorra siderurgia integralak, altzairu bereziek eta ontzigitzak osatu zuten, baina linea zuriko etxetresna elektrikoetan edo ehungintzan ere eragin nabarmena izan zuen. Siderurgiak eta ontzigitzak garrantzi estrategikoa zuten, defentsa nazionallean, barne eta kanpo merkataritzan eta presio ahalmen handiko sektore kapitalistekin zuten harreman estuan islatzen zena. Horrek lehentasuna eman zien sektore horiei, baina transferentzia publiko handien mende zeuden, gorabehera zikliko handien eta inbertsioen errentagarritasun txikiaren ondorioz –dela baliabide kopuru handia behar zutela ekoizpenerako, dela osagai espekulatibo esanguratsua zutela (ontzigitza)– (Vega, 1998). Nolanahi ere, egokitzapena ez zen mugatu birmoldaketan aitortutako sektoreetara soilik. Beste sektore batzuetan, meatzaritzan esaterako, egokitzapenak enpresak ixteko eta plantillak murrizteko bidea hartu zuen.




1984. urtearen inguruan, gatazka ugari piztu ziren, bai birmoldatzen ari ziren sektoreetan, bai birmoldaketan ez zeuden beste sektore batzuetan ere. Burdingintzan, Altos Hornos del Mediterráneo enpresaren jarduera eten egin zen protesta gogorren ondoren, eta, Acerialesen, plantilla asko murriztu zen Enplegua Sustatzeko Funtsen bidez; gainera, azken horretan ez zegoen langileak birkokatuko zituztelako itxaropen handirik. Ontzigintzan, gatazkak sortu ziren Gijonen, Ferrolen, Vigon eta Cadizen, baina liskar nagusia Euskalduna Ontziolan gertatu zen. 1984ko udazkenean, protesta egun gogor batzuen ondoren, lehen egokitzen fasea izan zuen ontziolak, eta plantilla asko murriztu zuten. Azkenik, 1988an itxi zen. Gainera, ehungintza-sektorean ere liskarrak izan ziren Kataluniako hainbat hiritan, hala nola Sabadellen eta Terrassan. Meatzaritzan, protesta nagusiak Asturiasko Meatzaritzako Arroetan gertatu ziren; Nafarroan ere protestak izan ziren Potasako meategietan. Era berean, automobilgintzan eta garraio publikoan ere gatazkak piztu ziren. Horrek guztiak giro politikoa lehenaz gainera astindu zuen.

Kalteak izan zituzten eremu nagusietan, gobernuaren berrindustrializazio-neurri nagusiak Premiazko Berrindustrializazio Eremuak (ZUR gaztelerazko sigletan) eta Enplegua Sustatzeko Funtsak (FPE gaztelerazko sigletan) izan ziren. Sei Premiazko Berrindustrializazio Eremu eratu ziren: Madril, Bartzelona, Asturias, Vigo-Ferrol, Cadizko Badia eta Nerbioi itsasadarra (Bizkaia eta Araba). ZUR direlakoek nolabaiteko eragina izan zuten ordurako dinamismo handia zuten lurraldeetan, Madrilen eta Bartzelonan kasu. Gainerakoetan, urrun egon ziren aurretik baziren arazoak konpontzetik. Bestalde, Enplegua Sustatzeko Funtsak ere ez zuten beren asmoa lortu. Funts horiek 1989ra arte egon ziren martxan, eta denbora horretan ez ziren gai izan 55 urtetik beherako langileak birkokatzeke. Hasieran hiru urteko iraupena izatekoak ziren, baina emaitza eskasak ikusita beste hemezortzi hilabetez luzatu ziren. 1989an, egoerak hobera egin ez zuenez, erretiro aurreratua izateko aukerak handitu egin ziren, eta erretiroa hartu ezin zuten langileak pizgarriaren erretiroa hartzera behartu zituzten.

Espainiako Gobernuak ezarritako birmoldaketa-neurriek eragin esanguratsua izan zuten EAEko sektore eta enpresa estrategikoetan. Horren arrazoiak izan zen EAEko ekonomia hein batean burdinaren eta haren deribatuen mende zegoela (krisiaren inpaktuaren eragin gogorrenak izan zituzten sektoreak). Bestalde, EAEko industria-sarea enpresa txiki eta ertainek osatzen zuten gehienbat, zeinek enpresa handien laguntzaile gisa jarduten zuten, eta horrek zaurgarri bihurtu zituen krisiaren aurrean.

Eusko Jaurlaritzak bere industria-politika bereziari ekin zion, eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea (SPRI) eratu zuen 1981n, birmoldaketa-neurriak bultzatzeko eta Eusko Jaurlaritzaren industria-politika gauzatzeko bitarteko bihurtzeko helburuz. SPRIren lehenengo eskuhartzea inolako estrategia orokorrik gabe zailtasunak zituzten enpresei laguntzak ematea izan zen. Laguntza horiek enpresei emateko dirulaguntza eta maileguak ziren, edo oro har enpresaren sustapenerako ematen ziren. Enpresa-sustapenerako maileguen zati handi bat 1983ko abuztuan Nerbioi ibaian izandako uholdeek eragindako kalteetara bideratu zen.

1985ean, Eusko Jaurlaritza birmoldaketa zabaltzen saiatu zen, hala estatututako birmoldaketak barne hartu ez zituen sektore ekonomikoetara zabaltzeko. Hori dela eta, makina-erremintan, etxeko altzarrietan, arte grafikoetan eta abarretan oinarritutako Aparteko Berrabiarazte Plana aurkeztu zuen. Hala ere, plan horrek agerian utzi zuen zein larria zen enpresa txiki eta ertainen sektoreak zuten gainbehera ekonomikoa eta finantzarioa, zeharo zorpetuta baitzegoen. Gainera, SPRIk «Industrialdeak» izeneko programa bat abiatu zuen industriarako lurzoruen beharrari eta industrialde tradizionalen degradazioari erantzuteko. Era berean, Parke Teknologikoen bidez espazioak eman nahi zizkien izaera horretako enpresa-mota berriei.



EUROPAKO EKONOMIA ERKIDEGOAREKIN BAT EGITEA, BIRMOLDAKETA BERRIAK ETA PRIBATIZAZIOAK

80ko hamarkadaren erdialdean, jarduera ekonomikoak susperraldi txiki bat izan zuen. Hainbat faktore izan ziren lagun: soldata-politika gogorrak eta 1984ko Akordio Sozial eta Ekonomikoa (GEA), plantillen murrizketak eta enpresak onbideratu izana, krisiaren kostuak sozializatu izana, Langileen Estatutuaren 1984ko erreforma (are gehiago malgutu zuen lan-indarra) eta Espainiak 1986an Europako Ekonomia Erkidegoarekin bat egin izana (transferentzia publiko garrantzitsuak ekarri zituen Espainiako Estatura). Hobekuntza horren zati baten erakusgarri da BPGa urteko batez beste %5 hazi zela 1986tik 1989ra (Gálvez, 2013).


Egonkortasun politikoak, langile-klasearen ahuleziak eta laneko errentak kapitalera transferitzeak lasaitasuna ekarri zion burgesiari. Aldi horretan, ekoizpeneko inbertsioek hobekuntza izan zuten, eta horrek eraikuntzaren eta zerbitzuen sektorea hedatzea ahalbidetu zuen. Ondorioz, enpresa-mozkin handiak izan ziren, soldata baxuek, enplegu prekarioek eta inbertsioaren berreskuratze azkarrak eraginda. Gainera, Espainia Europako Ekonomia Erkindegoan integratu izanak are gehiago handitu zuen ekonomiaren liberalizazioa, eta horrek aukera eman zuen kanpo-eskaria handitzeko eta atzerriko herrialdeek Espainiako Estatuan inbertsio handiagoa egiteko.

Hala eta guztiz ere, euforia hori ez zen sobera luzatu; izan ere, 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran Espainiako ekonomia berriro gelditu zen. Soldatak etengabe estutzeak ezin izan zion ekoizpenaren hazkunde eskasari eutsi, eta, beraz, doikuntza berriak behar izan ziren, Europaren onespina behar zuten Europak interes txikia zuela Espainiako industria modernizatzeko eta sustatzeko. Horren ordez, finantzak eta eraikuntza ustiatu ziren, horretarako azpiegitura-plan handinahi batera bideratutako transferentzia handiak erabiliz (Rodríguez eta López, 2010). Ondorioz, Espainiako ekoizpen-egiturak lehen bezain espezializatua izaten jarraitu zuen eskari ez hain progresiboa zuten industria-adar batzuetan; lanaren nazioarteko banaketan tarteko leku bat hartu zuen, non ekoizpenaren sektore estrategiko batzuek ez zuten lekurik. Beraz, nazioarteko merkataritzaren bidez hornitu behar izan ziren (Gómez Uranga, 1991).

Enpresa gehiago itxi ziren, plantillak are gehiago doitu zituzten eta ekoizpen-ahalmena murriztu zen. Era berean, ekoizpena adar batzuetan kontzentratu zen enpresa-talde berrien sorreraren bidez; sortutako enpresa horien artean daude Siderurgia Integralaren Korporazioa (Bizkaiko Labe Garaiak eta Ensidesa) edo Acenor eta ondoren Sidenor, altzairu berezien arlokoa. Aitzitik, aipatzekoa da Bizkaiko Labe Garaiak 1996an itxi zela, ahaztu gabe beste industria-sektore batzuetan ere enpresa ugari itxi zituztela eta langile ugari kaleratu. Bestalde, Industria Partaidetzarako Espainiako Sozietateak (SEPI, gaztelerazko sigletan), INI-ren oinordekoak, Estatuak pribatizatu egin zituen onbideraturiko enpresa-taldeak, zorra ordaintzen jarraitzeko likidezaren truke. Joera hori indartu egin zen Alderdi Popularraren gobernuetan, 1996tik aurrera, ekonomiaren erregulazio eza eta nazioarteko lehia-
ren gorakada medio.

EAEko testuinguruan, desindustrializazioak batez ere industria astun eta zaharkituan eragiten jarraitu zuen; bertan, ekoizpenak espezializatua izaten jarraitu zuen. Nerbioiko Premiazko Berrindustrializazio Eremuko ekoizpen inbertsioek kostu handia zuten sortutako lanpostu berri bakoitzeko. Gainera, dibertsifikazio sektoriala, ekoizpenaren nazioartekotzea eta garapen teknologikoa mugatuak zeuden. Industria-jarduera tradizionalen maila handiena zuten udalerriek kalte handiak izan zituzten, gaitasun txikiagoa baitzuten jarduera berrietara zabaltzeko (Del Castillo, Esteban, Flores, 1989).

Eusko Jaurilaritzak orduan, 90eko hamarkadan, garapen teknologikoan, enpresen arteko lankidetzan eta enpresen nazioartekotzean oinarritutako industria-politika bat lehenetsi zuen, Industria-politikako Jarduera Esparru Orokorren bitartez. Atzerriko inbertsioa erakarri nahi zuen, bai eta euskal industriak atzerrian zuen presentzia handitu ere, lehia askearen eta kluster bidezko ekimen pribatuaren bitartez. Gainera, Eskualde Garapene-ko Europako Funtsek azpiegitura-plan garrantzitsuak ekarri zituzten. Hala ere, 90eko hamarkadaren hasierako atzeraldiaren ondorioz, Eusko Jaurilaritzak funts publikoetara jo behar izan zuen berriro, krisian zeuden enpresentzat 3R Programa (laneko erreskatea, berregituraketa eta birorientazioa; *rescate, reestructuración y reorientación laboral* gazteleraz) ezartzeko 1991n eta, horrela, nolabaiteko egonkortasuna bermatzeko epe labur eta ertainean.



Egoera horretara iristeko, beharrezkoa izan zen eskulanaren ordez kapitala jartzea, lan-esplotazioa handitzea, baliabide publiko ugari enpresei transferitzea eta polarizazio soziala bultzatzea proletalgoa soberakin bihurtu zen lurralde industrialetan

Horrela, EAEko ekonomiak hobera egin zuen 2000. urtera iristean. Hobekuntza hori garapen teknologiko handiagoaren, produktuen kalitatearen hobekuntzaren eta kostuen murrizketaren ondorio izan zen. Gainera, ekoizpenaren dibertsifikazioak industria astunaren mendekotasuna murrizten lagundu zuen eta sektore metaliko dinamikoenen, eraikuntzaren eta enpresentzako zerbitzuen garrantzia handitu zuen (IKEI, 2001). Hala ere, egoera horretara iristeko, beharrezkoa izan zen eskulanaren ordez kapitala jartzea, lan-esplotazioa handitzea, baliabide publiko ugari enpresei transferitzea eta polarizazio soziala bultzatzea proletalgoa soberakin bihurtu zen lurralde industrialetan.

PROLETARIZAZIOAREN ITZAL LUZEA

70eko hamarkadako metatze-krisiak ekoizpena mundu mailan berrantolatzea ekarri zuen, ordena sozial kapitalista ziurtatu nahi bazen. Horren ondorioz, Espainiako Estatuak industria-birmoldaketaren bidez egin zuen bere berregituraketa partikularra, desindustrializazioak eta klase-dominazio handiagoak definitutako metatze-ziklo berriaren eskakizunetara egokitzeko.

Ekoizpen-aparatuaren berregituratze horrek kapitalaren salbagailu funtzioa bete zuten baliabide publiko ugari xurgatu zituen. Kalkuluen arabera, 1989ra arte, industria-birmoldaketak 2,9 bilioi pezetako kostua izan zuen. Eta hori bankuen birmoldaketaren kostua kontuan hartu gabe; izan ere, oso zorpetuta zeuden, akzioen bidezko partaidetza baitzeukaten krisian zeuden enpresetan, eta ezin izango zukeen inbertsioaren zati bat berreskuratu Estatuaren esku-hartzerik gabe (Navarro, 1989). Nork finantzatu zuen hori guztia? Proletalgoak, Estatuaren bidez. Izan ere, Estatuak kostuak sozializatu zituen eta kapitalaren zerbitzura jardun zen zuzenean, soldatak eta aurrezkiak espoliatuz. Horrela, Espainiako ekoizpen-eraginkortasun txikia konpentsatzeko, laneko errentak kapitale-ra banatu eta proletarioak modu absolutuan zein erlatiboan pobretu ziren.

Industrian etengabe suntsitu ziren lanpostuak, eta etengabe galdu zuen pisu erlatiboa sortzen ari zen zerbitzu-sektorearen aldean. Espainiako Estatuan 1975ean 3,5 milioi lagun ari ziren industrian lanean, eta, 1990era-ko, aldiz, 2,9 milioi besterik ez; EAEn 355.000tik 240.000ra igaro ziren (Torres, 1991). Horregatik, birmoldaketaren barruko berrindustrializazio-proiektuek ez zuten ibilbiderik izan. Lehenik eta behin, European desindustrializaziorako joera nagusitu zelako, eta, bigarrenik, Jaurlaritzak eta Europako Ekonomia Erkidegoak interes handia zutelako azpiegitura-proiektu handien bidez finantzen eta eraikuntzaren ustiapena sustatzeko. PSOEn birmoldaketaren lehen fasean (1982-1985), Premiazko Berrindustrializazio Eremuek horretara bideratutako baliabide guztien % 2 baino ez zuten izan. Gainera, 1986. urtera arte, Enplegua Sustatzeko Funtsetan babestutako langileen % 16k bakarrik lortu zuten haietatik irtetea (Marín, 2006).

Gatazka, beraz, kaleratutako langileen baldintzak hobetzera bideratu zen. Hala ere, sindikatuak ez ziren energia beraz aritu sektore guztietan, eta erantzun solidarioa ere desorekatua izan zen. Siderurgian eta ontzigintzan babes handia izan zuten, baina oinetakogintzak eta ehungintzak, batez ere emakumeek osatutakoak, babes txikiagoa izan zuten. Gauza bera gertatu zen enpresa txiki eta ertaineko langileekin, ia errebindikaziorik gabe kale-ratu baitzituzten. Era berean, sindikatuak zeregin erabakigarria izan zuten gobernua gatazka handiagorik gabe itxi zituzten enpresak; izan ere, uko egin zieten borrokan ari ziren sektoreen mobilizazioak bateratzeari eta aurre egin zieten langilerik borrokalarienen nukleoei (Wilhelmi, 2021).

Zenbait gatazkatan, langileek negoziatorako ezarritako legezko bideak gainditzea lortu zuten, eta Estatuak hasieran eskaintakoak baino prestazio handiagoak erauztea lortu zuten. Hala ere, borrokan balioa gorabehera, garaipen partzialek ez zuten langile-mugimenduak izan zuen porrot orokorra konpentsatzea lortu. Gainera, denborarekin, garaipen partzial horiek galdu eta lehengo egoerara bueltatu ziren.

80ko eta 90eko hamarkadetan, langile-klaseak Trantsizioan sufritutako desengainuak jarraitu zuen, nahiz eta desengainu horren forma aldatu zen. Politika instituzionalarekiko atxikimendu faltari joera autosuntsitzailea gehitu zitzaion bereziki gazteriaren gain, baina horretara mugatu gabe. Auzo proletarioetan heroinak, alkoholak eta osasun mentaleko arazoek bizitza ugari eraman zituzten. Desolazioa nabarmena zen lehengo industria-gunee-tako kaleetan, abandonatuta eta erortzeaz zeuden fabrika ugari zituztela atze-oihal.



Proletarioen zati handi bat ez zuen berriz xurgatu lan-merkatuak. Batzuk Enplegua Sustatzeko Funtsetan harrapatuta, beste batzuk nahitaez erretiroa hartuta eta gehiengoa langabeziara kondenatuta gelditu ziren

Proletarioen zati handi bat ez zuen berriz xurgatu lan-merkatuak. Batzuk Enplegua Sustatzeko Funtsetan harrapatuta, beste batzuk nahitaez erretiroa hartuta eta gehiengoa langabeziara kondenatuta gelditu ziren. Ondorioz, erreserbako industria-armada handi bat sortu zen: lan-baldintzak beherantz bultzatu zituen, eta eragin diziplina-tzaile handia izan zuen. Lan-indarraren esplotazioak eta aberastasunaren banaketa erregresiboak, kapitalaren zentralizazioak, ekonomia- finantzarizazioak, higiezinaren boomak, zerbitzuen sektorearen hazkundeak eta Europako funtsetatik lortutako transferentziek irabazi kapitalisten gorakada ikusgarria ekarri zuten. Hala eta guztiz ere, metaketaren moteltzea ezarri egin zen egiturazko joera moduan, eta horrek are gehiago estutu zituen irabazirako marjinak; ondorioz, mundu-mailako beste krisi ekonomiko eta finantzario bat piztu zen 2008an. Inbertsioaren eta industria-jardueraren beherakada gogorak itxiera- eta kale-ratze-olatu berri bat ekarri zuen. Horrek proletalgoaren aurkako ofentsiba berri bat eragin zuen; haren amaiera-rik ez dugu oraino ikusten. ●

BIBLIOGRAFIA

Alonso, Ángel (2013). "Astilleros varados. Construcción naval de Gijón, el ocaso de un gigante" en Rubén Vega (ed.) *Astilleros en el Arco Atlántico. Trabajo, historia y patrimonio*. Trea: Gijón, 103-130.

Del Castillo, Jaime; Esteban, Marisol y Flores, Francisco (1989). "Inversión industrial y localización: una aproximación al caso de los municipios de la cuenca del Nervión", *Economía*, 15, 204-247.

Gálvez, Sergio (2013). *Modernización socialista y reforma laboral, (1982-1992)*. Tesis doctoral. Universidad Complutense de Madrid: Madrid.

Gómez Uranga, Mikel (1991). "La internacionalización de la industria española: un proceso acelerado" en Miren Etxezarreta (Coord.) *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*. Icaria: Barcelona, 465-500.

González Calvet, Josep (1991). "Transformación del sector público e intervención en la economía" en Miren Etxezarreta (Coord.) *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*. Icaria: Barcelona, 177-238.

IKEI (2002). *Economía Vasca: evolución sectorial (1976-2001)*. Caja Laboral Popular: Arrasate.

López, Isidro y Rodríguez, Emmanuel (2010). *Fin de ciclo. Financiarización, territorio y sociedad de propietarios en la onda larga del capitalismo hispano (1959-2010)*. Traficantes de Sueños: Madrid.

Marín, José María (2006). "La fase dura de la reconversión industrial", *Historia del Presente*, 8, 2006, 61-101.

Navarro, Mikel (1989). *La política de reconversión: un balance crítico*. Eudema: Madrid, 1989.

Piqueras, Andrés (2015). *Capitalismo mutante: crisis y lucha social en un sistema en degeneración*. Icaria: Barcelona.

Torres, María Concepción (1991). "Diez años de reconversión industrial en Euskadi, 1980-1990", *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 13, 165-186.

Vega, Rubén (1998). *Crisis industrial y conflicto social: Gijón, 1975-1995*. Trea: Gijón.

Wilhelmi, Gonzalo (2021). *Sobrevivir a la derrota. Historia del sindicalismo en España, 1975-2004*. Akal: Madrid.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Trantsizioko langileen sugar otzandua



Imanol Satrustegi



Diktadura frankistaren amaieran, Euskal Herriko langile-mugimenduak borrokarako eta mobilizaziorako gaitasun handia lortu zuen, *Klase Gizartearen Aurkako Bigarren Oldarraldi Proletarioa* deiturikoan zehar Mendebaldeko beste leku batzuetan ere gertatu zen bezalaxe. Kapitalismo frankistaren aurrean, borroka erradikal, asanbleario eta unitarioen zurrumbilo erraldoia zutitu zen. Horri esker, langile-klaseak diktadurari aurrez aurre begiratu ahal izan zion eta kapitalaren boterea bera ere kinka larrian jarri zuen. Mehatxu horren aurrean, burgesiak erreakzionatu egin zuen eta Trantsizioan zehar egoera bideratzea lortu zuen, besteak beste, erakunde demokratikoetatik sortutako lan-harremanen esparru berriari eta ezkerreko alderdi eta sindikatuen ezin eskertuzko laguntzari esker. Nola lortu zuen kapitalak bere boterea mehatxatzen zuen langile-sugarra otzantzea? Horixe bera azaltzen saiatuko gara hurrengo lerrootan.

LANGILE BORROKA FRANKISMOPEAN

Diktadura frankista, hasieratik bertatik, *klase* izaera nabarmena zeukan erregimena izan zen. Bere sortzetiko helburua Errepublikako programa erreformista geldiaraztea eta elite ekonomikoen interesak mehatxatzen zituen langile-mugimenduaren goraldia eragoztekoa izan zen. Horretarako, ezkerreko erakunde guztiak debekatu eta jazarri zituen eta langile-klasearen erreproduzio politikoa eragotzi zuen. *Langile* hitza bera ere hizkuntzatik ezabatu nahi izan zuten; *langileez* edo *proletarioez* hitz egin beharrean, *produktoreez* hitz egiten zen. Gainera, faxismoaren ideal korporatibistari jarraituz, klase-borroka dekretuz desagerrarazi nahi izan zen, herrialdeko gizarte- eta lan-bizitzaren alderdiak modu autoritarioan erregulatuz, bereziki Sindikatu Bertikal delakoaren bidez. Hau da, lan-eskua errepresioaren bidez diziplinatu zen. Horregatik guztiagatik, Gerra Zibilaren ondorioetako bat langile-mugimendua desagertzea izan zen eta horrek soldata erreala jais-tea eta enpresariaren irabaziak handitzea eragin zuen.

Hala ere, 1950eko hamarkadan al-daketa sakonak gertatzen hasi ziren, 1953ko Itun Hispanoamerikarraren eta 1959ko Egonkortze Planaren bidez Espainia frankista Kapitalismoaren Urrezko Aroaren hazkundeari lotu zitzaionean. *Desarrollismo* izenekoak gerraosteko atzerapen ekonomiko eta industrialetik atera zuen Espainia. Hazkunde ekonomiko hura eredu for-distaren kapitalismoan oinarritu zen batez ere, eta erabat aldatu zuen lan-eskuaren izaera eta osaera. Landa-eremuko lanen mekanizazioak hirietara bidali zuen lan-indarra. Urte gutxiren buruan, ordura arte industria-paisaia-n parte hartu ez zuten sektoreetako lan-tegi eta enpresak sortu ziren; bereziki, metalaren adarrak (automobilgintza, etxetresna elektrikoak, etab.), baina baita beste batzuk ere, hala nola kimi-ka. Ordurako, Bizkaia eta Gipuzkoak historia industrial eta urbano luzea zu-tzen, baina orduan modernizatu ziren Nafarroako eta Arabako ekonomia- eta gizarte-egiturak.

Hazkunde ekonomikoaren eta gi-zarte-eraldaketen testuinguru hartan sortu zen langile-klase berria. *Desarro-lismoak* atek ireki zizkion lan-harre-manen esparru berri bati, eta horrekin batera lan-gatazken aldi berri bati ekin zitzaion, batik bat 1958ko Hitzarmen Kolektiboen Legea onartu zenetik. Gi-zarte-gatazka berriz ere azaleratu ze-nean, langile-klase berri hark baliabide material eta kulturalak behar izan zi-tuen bere interesak defendatzeko. Pix-kanaka, bizipen partekatuen ondorioz –hala nola esplotazio-esperientziak, langileen arteko sozializazio-esp-a-zioak, behar ekonomikoak edo borroka kolektiboak–, langile-klase hark norta-sun berri bat eratu zuen (hau da, sub-jektibotasun berri bat edo *gu* berri bat). Identitate hori klase-terminoetan arti-kulatu zen, eta, horren ondorioz, prole-tariotza kontzientzia hartzen hasi zen, eta subjektu historiko bihurtu zen.

Langile-mugimendu berri haren lehen urratsak apalak eta nekezak izan ziren. Errepresioa oso gogorra zen, eta gerra zibilaren oroitzapenak pisu han-dia zeukan. Baina 1960ko hamarkada-ren erdialdean iratzarri zen, batik bat Langile Komisioak-en (Comisiones Obreras, CCOO) inguruan. Sindikatu klasikoa izatetik urrun, CCOO mugimendu soziopolitiko asanbleario eta unitarioa zen, eta indar politiko eta sozial desberdinek parte hartzen zu-tzen bertan elkarlanean. Espainiako Al-derdi Komunista (PCE) zen CCOOen dinamizatzaile nagusia, Espainiako eskualde gehienetako batzordeak eta koordinakundeak kontrolatzen bai-tzituen. Baina, gainera, bertan parte hartzen zuten kristau jatorriko ehun-ka militantek, ezker iraultzailako al-derdi ezberdinek (ORT, PTE, MCE edo LCR-ETA VI, bereziki Hego Euskal He-rrian eragin handia zutenak^[1]), filiazio politikorik gabeko langile independen-teek eta baita ETako Langileen Fron-teak ere. Gainerako indar sindikalak – Unión General de Trabajadores (UGT) sozialista eta Unión Sindical Obrera (USO) kristaua –, aldiz, eskualde edo eremu jakin batzuetan izan ezik, askoz ere gutxiago errotu ziren, eta CCOOk gidatu zuen langile-mugimendua. Hala ere, langile-mugimendu antifrankista hori guztia baino askoz gehiago zen. Izan ere, mobilizazioen zurrumbilo har-tan oinarri-oinarritik sortutako dina-mika asanbleario eta unitario ugari gu-rutzatzen baitziren, askotan alderdien eta sindikatuen kontrola gainditzen zutenak; hor zeuden, besteak beste, hala nola Comités Obreros –Gipuzkoan ezarpen handia zuten–, Gasteizko «Bo-rrokan dauden Lantegien Batzordeen Koordinakundea» (Coordinadora de Comisiones Representativas de Fábricas en Lucha) edo langile-autonomiak hainbat lurraldetan bultzatutako eki-menak. Garai hartako langile militante batek kontatu zigun bezala, «langileen biltzarrak dena ziren»^[2].

Pixkanaka, bizipen partekatuen ondorioz, langile-klase hark nortasun berri bat eratu zuen (hau da, subjektibotasun berri bat edo *gu* berri bat). Identitate hori klase-terminoetan artikulatu zen, eta, horren ondorioz, proletariotza kontzientzia hartzen hasi zen, eta subjektu historiko bihurtu zen





**Diktaduraren azken urteetan langile-
mugimendua sindikalismo hutsa baino
askoz gehiago zela esan genezake;
eduki politiko sendoa zuen eta
frankismoaren aurkako oposizioaren
bizkarrezur bihurtu zen**



Urte luzetan, bibliografia jakin batek defendatu zuen oposizio antifrankistaren jardun mobilizatzailea arrazoi ekonomizista edo kontsumistek bultzatzen zutela. Hau da, langile-klaseak diktadurak galarazitako ongizate estatu moduko bat ezarri nahi zuela baieztatzen zen, gizarte-eraldaketa sakonagoak planteatu gabe. Baina mobilizatzen zen gutxiengo militanteak ez zuen demokrazia liberal parlamentarioa edo bizi-baldintzen hobekuntza soilak lortzeko egiten. Klandestinitatean jarduten zuten indar politiko gehienak programa iraultzaileak zituzten erakundeak ziren, hau da, programa politikoak zituzten, sozialismoaren definizio ezberdinen pean kapitalismoaren ordezkotorturak planteatzen zituztenak. Burugabea izatetik urrun, garai hartan iraultzaren aukerak onargarria zirudien munduko edozein lekutan, Gerra Hotzaren testuinguruak eta 68ko Maiatzeko oihartzunek laguntzen zutela baitzirudien. Beraz, esan dezakegu gizartearen eraldaketa sozial sakona bultzatzeko helburuarekin antolatzen zirela langileen biltzarrak deitzen, bide-mozketak prestatzen eta grebak deitzen. Irrikan horrek gainerako borrokek bultzatzen zituen pizgarri gisa funtzionatzen zuen, eta laneko hobekuntzak goragoko helburu horren mende zeuden.

Gainera, diktaduraren klase-izakeraren ondorioz, patronala frankismoarekin identifikatzen zen eta langile-mugimenduaren borrokek izaera politikoa eta erregimenaren aurkakoa hartzen zuten sarri. Edozein aldarrikapen laboral edo ekonomiko, txikia izan arren, diktadurako lan-harremannen eredu bertikalaren aurka zegoen, eta, beraz, errepresioa jasan zezakeen. Horrez gain, puntu batetik aurrera, errebindikazioei eutsi edo haiek geldiarazi beharrean kolpe errepresiboek borrokek erradikalizatu, zabaldu eta politizatu egiten zituzten. Era berean, oposizioko alderdi politikoek patronalari aurkeztu zizkieten aldarrikapen-plataformetan aldarrikapen politikoak sartu ohi zituzten. Horren helburua zen langileak jabetzea beharrezkoa zela eguneroko aldarrikapenak epe-luzeagoko borroka politikoei lotzea, nahiz eta gero normalean «jateko kontuez» negoziatu. Horregatik guztiagatik, diktaduraren azken urteetan langile-mugimendua sindikalismo hutsa baino askoz gehiago zela esan genezake; eduki politiko sendoa zuen eta frankismoaren aurkako oposizioaren bizkarrezur bihurtu zen.

Azkenik, nabarmentzekoa da frankismo berantiarreko mobilizazioen ezaugarri bereizgarri batzuek elementu solidario eta komunitario garrantzitsuak zituztela, ez zirenak batera indibidualistak edo ekonomizistak. Esate baterako, garai hartan ohikoak ziren elkartzak grebak, hau da, gatazkan zeuden beste lantoki batzuei laguntzeko egiten zirenak. Horiak soldataren zati bat galtzea zekarten, klase bereko beste kide batzuei laguntzeko helburu bakarrekin. Era berean, soldata-igoera linealak eskatzen ziren, hots, eskatzen zituzten soldata-igoerak ez ziren guztientzat proportzionalak, soldata apalagoak zituztenek gehiago irabaz zezaten. Aldarrikapen horiek izaera igualitarista zuten, eta errebindikazio bereko oro gainditzen zuten.

Garai hartan, ohiko bihurtu zen lanaldia etetea batzarrak egiteko, eta langile-mugimenduko kide ohiek konstatzen digutenez, arraroa zen soldata osoa kobratzen zen hilabetea, egiten ziren lanuzte ugariengatik^[3]. Gainera, langile-mugimenduko militanteak atxilotzen zituztenean, lankideek behar deitu ohi zituzten lanuzteak aske utzi zezaten eskatzeko, eta enpresaburuak berak erregutu behar izaten ziren agintariei aske zezaten, ekoizpenari berriro heldu ahal izateko^[4].

70eko hamarkadaren lehen erdian, borrokan gorakada etengabea izan zen, eta une batetik aurrera mobilizazioen arrakasta ia bermatuta egon zen. Batzuetan, patronalaren autoritatea zailantzen jarri zen, eta, askotan, enplegatuen aldarrikapen gehienak onartu behar izaten zituzten. Tafallako lantegi batean, esaterako, ahalegin handiz, urtean % 34rainoko soldata igoerak lortu ziren, aparteko orduak bertan behera utzi ziren eta behin-behineko langileak finko bihurtzea lortu zuten: «dena irabazten zen une bat zen»^[5]. Era berean, Iruñeko Superser enpresako langile batek honako hau kontatu zigun:

«[...] momentu batetik aurrera, hainbesteko indarra genuen, jaun eta jabe ginen. [...] Gehiegizko indarrak galtzen gintuen. [...] ez bakarrik soldatengatik edo lan baldintzengatik. Norbaitek urteak betetzen bazituen, festa bat egiten zen. Kronometratzaileak ez ziren ausartzen kateko lana egiten zen tokira jaisuten [...] eta, ondorioz, gure lanpostuetako topeak oso baxuak ziren [langileek zer errendimendu bete behar zuten adierazten zuten topeak, adibidez, zenbat pieza ekoitzi behar zituzten orduko], eta, beraz, zenbaitek lana hiru ordutan bukatzen zuen. Eta terrazara joaten ziren eguzkia hartzera, eta zuzendaritza guztiak ikusten zituen. Hau da, botere bat genuen... berez kontrabotere bat zen»^[6].

DIKTADURAREN KRISIA ETA TRANTSIZIO SINDIKALA

Langile-mugimendua hazi egin zen eta borrokarako tresna eraginkorrak garatu zituen. Langileen elkartasunak funtzionatzen zuen eta patronalari konkistak ateratzeko gai ziren. Presio gaitasun handia zegoen. Gainera, errepresioak protestak geldiarazi edo desagerrarazi beharrean, erradikalizatu eta hedatu egiten zituen. Protesta sozialak patronalaren agintea zalantzan jartzen hasi ziren eta erregimen frankista kalako kontrola galtzearen beldur izan zen. Egoera horren aurrean, laneko errentak kapitalekoak baino gehiago hazi ziren; hau da, enpresarien mozkinen tasa murriztu egin zen. Gutxiengo militanteak, borroken gorakadaren aurrean, euforiaz ikusi zuen egoera, eta une batez uste izan zuen *iraultza*ren aurreko egoera baten aurrean zegoela. 1970eko hamarkadaren erdialdean erregimen frankista hari batean zegoen.

Hori guztia gutxi balitz, krisi ekonomikoak are gehiago zaildu zuen egoera. Petrolioaren prezioaren igoerak Espainiako ekonomia ahula eta mendekoa kolpatu zuen, amaiera eman zion gerraosteko kapitalismo keynesianista-fordistaren hazkunde ekonomikoari eta jarduera ekonomikoaren jaitsiera, desinbertsioa eta langabezia eragin zituen. Langile-mugimenduak, ongi antolatuta eta mobilizatuta, prezioen gorakadari aurre egin nahi izan zion mobilizazio gehiagorekin, eta horrek soldata-igoera handiak eragin zituen. Baina, aldi berean, enpresarien klaseak igoera horiek kontsumo-prezioetan islatzea erabaki zuen, beste behin ere. Langileen klasea eta patronala saiatu ziren krisiaren kostua bestearen gain jartzen, eta horrek sorgin-gurpil bat eragin zuen: 1977ko abuztuan inflazioa % 28,4koa izatera iritsi zen.

Frankismoaren aurkako oposizioak diktadura higitua zuen eta krisiak haren jarraipena eragotzi zuen. Alde batetik, diktadura ez zen gai oposizioaren mobilizazioei eusteko, eta kolpe errepresiboek, oposizioa geldiarazi beharrean, erradikalizatu egiten zuten. Bestetik, Desarrollismo garaiko hazkundearen amaieraren aurrean, Espainiako ekonomiak erreforma sakonak behar zituen, eta diktadura ez zen erreforma horiek egiteko gai, gero eta maniobra-tarte txikiagoa baitzuen. Gainera, Portugalgo Krabelinen Iraultzaren (1974-1976) etsenpluak Espainian izan zezakeen eraginaren beldurra zegoen. Hitz batean, diktadurak baliagarri izateari utzi zion eliteentzat eta burgesiarentzat. Beraz, diktaduraren eraiste kontrolatua inprobisatu behar izan zuten, Espainiako kapitalismoari lege-marko berri bat emateko, oposizioaren onarpena eta beharrezko erreforma ekonomikoei ekiteko legimitate nahikoa izanzen zuena, eta hori guztia sistema ekonomikoaren oinarri nagusiak ukitu gabe.



Langileen mugimenduaren adierazpen asanbleario eta unitarioek denbora-tarte horretan jo zuten goia. Bizkaian, adibidez, 1976ko irailean Bizkaiko Fabriken Koordinakundea sortu zen, probintzia osoko lantegi garrantzitsuenetako batzarretako langileek aukeratutako ordezkariak biltzeko. Erreterian, 1976-79 bitartean, jardunean egon zen Herri Batzarra. Herri partaidetza eta kontrabotere organo horrek mobilizazioak antolatu eta koordinatzen zituen, eta bizitza politiko eta sozialaren hainbat alderdi eztabaidatzeko ere balio zuen.

Diktadorea hil ondoren, elite frankistek diktaduraren azaleko erreforma ezarri nahi izan zuten, *Francorik gabe*ko frankismoa luzatzeko. Baina 1976ko negu-udaberriko mobilizazioen uholdeak, Gasteizko gertakaria lazgarriak mugarri gisa edukita, erabat gainditu zuen Espainiako Gobernua. Arias Navarrok dimisioa eman behar izan zuen, eta Adolfo Suárez Espainiako Gobernura iritsi ondoren, Erregimenak amore eman behar izan zuen. Oposizioaren parte-hartzea onartu zuen eta Europako demokrazia liberalen pareko sistema konstituzional eta parlamentarioako bidea abiatu zen. Prozesu osoa Estatuaren kontrol zorrotzaren pean gertatu zen, eta bide oro itxi zitzaion irteera erradikal edo hausturazaleei. Orduan bakarrik ikusi ahal izan zen irekitze batek Estatuaren balizko demokratizazioa ekar zezakeela.

Gertatzen ari ziren aldaketan aurrean, langile-mugimendua eta sindikatuak egoera berrira egokitzeke prestatu ziren. Testuinguru berriaren aurrean, CCOOko militante eta talde politiko gehienak mugimendu hori langile-klase osoa bilduko duen Zentral Sindikal Unitario bihurtzearen alde zeuden, parte-hartzaileen filiazio politikoa edozein izanda ere. Hala ere, UGTk eta USOk –ordura arte zeregin apala izan arren, asko hazten ari zirenez zuten zentral sindikal bateratu bat osatu nahi, eta nahiago zuten Europako beste herrialde batzuen antzeko eredu sindikal plural bat. Sortzen ari zen askatasun sindikalak, aldi berean, sindikatuen arteko zatiketa ekarriko zuela zirudien testuinguru horretan, Bartzelonako Batzarra egin zen 1976ko uztaillean: CCOOren trantsizio sindikatetatean egin zen batzar hartan, CCOOko korrante nagusiak, PCE buru zela, ohiko sindikatu bihurtzeko erabakia hartu zuen. Horrek *de facto* batasunari uko egitea eta sindikatuen arteko zatiketa onartzea esan nahi zuen. Soilik CCOOen gutxiengoan zeuden korrante iraultzaile batzuek eutsi zioten jatorrizko borondate unitarioari: ORT eta PTE alderdi maoistak, gehiengoaren erabakia onartu ez zutenak, banatu egin ziren eta izaera erradikal eta unitarioko sindikatu bana sortu zuten.

Diktaduraren eraiste kontrolatua inprobisatu behar izan zuten, Espainiako kapitalismoari legermarko berri bat emateko, oposizioaren onarpena eta beharrezko erreforma ekonomikoei ekiteko legitimitate nahikoa izanen zuena, eta hori guztia sistema ekonomikoaren oinarri nagusiak ukitu gabe

Langileen mugimenduaren adierazpen asanbleario eta unitarioek denbora-tarte horretan jo zuten goia





GERMAN RODRIGUEZ
¡DISEMINADO
POSOLUCION CUER
POS REPRESIVOS!
L.K.I.



Itun horietan, lehentasuna ematen zitzaien enpresa-mozkinak berreskuratzeari, ekonomia liberalizatzeari eta, batez ere, soldatei eusteari, hala inflazioa murrizteko. Neurri horiek eragin negatiboa izango zuten langile-klasearen baldintzetan, baina bai PSOEk, bai PCEk, bai haien erakunde sindikalek (CCOO eta UGT), neurri horiek onartu zituzten eta langileen mobilizazioa mugatzeko konpromisoa hartu zuten, zenbait kontrapartida sozial eta politikoren truke

ITUN SOZIALA ETA ERRESISTENTZIA

Frankismoaren ondoren, krisi ekonomikoa zela eta, eliteek eta burgesiak legimititate-iturri berriak behar zituzten Espainiako kapitalismoarentzat, beharrezkoa baitzen susperraldi ekonomikoa oinarriak jartzeko esparru egonkor bat. Neurri ekonomikoak enpresen mozkinak berreskuratzeko eginahaletan zentratuko ziren, eta, beraz, zalantzarik gabe, krisiaren kostua langile-klasearen bizkar geratuko zen. Baina neurri horiek guztiak ezin ziren ezarri mobilizatutako langile-mugimenduarekin. Horretarako, Gobernuak eta eliteek ezkerreko alderdi eta sindikatu nagusien lankidetzak behar zuten, Estatuaren demokratizazioaren eta panorama politiko berrian espazio bat izatearen truke *sine die* atzeratu zitzaten gizarte-aldaketarako itxaropenak. Frankismoaren osteko lehen hauteskundeetan, 1977ko ekainaren 15ean, hautesleen gehiengoak aldaketa moderatuaren eta erakunde demokratizazioaren aldeko hautagaitzak babestu zituen.

Hauteskundeen ondoren, proposamen hori *kontsentsuaren* espirituan zehaztu zen, eta, alderdi soziolaboralean, urte bereko udazkenean sinatutako Moncloako Itunen forma hartu zuen. Itun horietan krisiaren aurkako lehen neurri ekonomikoak adostu ziren. Lehentasuna ematen zitzaien enpresa-mozkinak berreskuratzeari, ekonomia liberalizatzeari eta, batez ere, soldatei eusteari, hala inflazioa murrizteko. Neurri horiek eragin negatiboa izango zuten langile-klasearen baldintzetan, baina bai PSOE, bai PCE, bai haien erakunde sindikalek (CCOO eta UGT), neurri horiek onartu zituzten eta langileen mobilizazioa mugatzeko konpromisoa hartu zuten, zenbait kontrapartida sozial eta politikoren truke. Horrek, praktikan, sortzen ari zen erregimen monarkiko eta kapitalista ontzat ematea esan nahi zuen. Hori guztia justifikatu zen esanez ez zegoela nahikoa indarkorrelaziorik aldaketa sozial sakonagoak eragiteko, eta saihestu egin behar zela gerra zibil berri bat edo diktadurarako inboluzio bat. Langile-mugimenduko sektore erradikal eta iraultzaileen oposizioaren eta Gobernuaren arteko *su-eten* hori (erregimen berriaren ezarpena errazteko aldarrikatua) kritikatu zuten. Itun sozial bat zela salatu zuten, krisiaren pisua langile-klasearen bizkar jartzea helburu zuena.

Patronala, aldiz, kinka-larrian egon zen 1976ko lehen hiruhilekoan, eta sozialki erabat deslegitimatuta geratu zen, diktadurarekin gehiegi identifikatzen zelako. Hurrengo hilabeteetan, ordea, abagunea aprobetxatu zuen bere burua berrantolatzeko eta bere posizioa indartzeko. Ordura arte burgesiak ez zuen erakunde propiorik behar izan, diktaduraren sostengua eta babesa baitzuen, batez ere Sindikatu Bertikalaren bidez. Baina erakunde frankistak desgitearen ondorioz, berrantolaketa-prozesu nekeza hasi behar izan zuen, eta 1977ko ekainean Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioa (CEOE) sortu zen. Enpresari antolaketa berriak eragina izan zuen Gobernuan, batez ere hurrengo urteko abenduan Konstituzioa onartu zenean. Horrela, burgesiak egoeraren kontrola eta legimititate sozialaren zati bat berreskuratu zituen.



Aldi berean, hurrengo urteetan eratzten joan zen klase-borroka baldintzatu zuen lan-harremanen esparru berria. Frankismoaren aurkako borrokan izandako dinamika asanbleario eta unitarioek kalte handia egin zioten Gobernuaren eta patronalaren negoziazio-gaitasunari. Moncloako Itunaren eta Langileen Estatutuaren bidez (1981), ordezkaritza sindikalean oinarritutako lan-harremanen eredu instituzionalizatu zen, eta ez langileen parte-hartzean oinarritutakoa. Sindikatu nagusiak (CCOO eta UGT) lan-harremanen esparru berria onartzeaz gain, Gobernuarekin eta patronalarekin lankidetzan aritu ziren batzarrak desagerrarazteko. Gainera, legedi berriak izaera solidarioa eta politikoa zuten grebak debekatu zituen. Ordutik aurrera, langile-mugimenduaren aldarrikapenak lan-arlokoak edo soldata-arlokoak baino ez ziren izan, eta politika birtualizatu egin zen, legebiltzarrean ordezkaritza zuten alderdi politikoetara mugatuta. Horregatik guztiatik, langile-mugimenduaren mobilizazioen izaera aldatu egin zen, ahalmen eraldatzailea galdu baitzuten. Sindikatuen banaketa errealtate bat zen ordurako, eta dinamika asanbleario eta bateratuak gainbeheran sartu ziren.

Horren aurrean, langile-mugimenduaren sektore aurreratuenek erresistentzia handia erakutsi zuten. Ezker erradikalak eta ezker abertzaleak bultzatutako sindikatuak, bai eta langile-autonomiak ere, gogor egin zuten Moncloako Itun Sozialaren aurka, eta krisiaren kostua langileen klasearen gain gera ez zedin saiatu ziren. 1979. urterako, Gobernuak eta patronalak % 11 eta % 14 arteko soldata-mugak adostu zituzten. Langile-mugimendua muga haiek gainditzeko saiatu zen, eta gutxienez prezioen igoeraren parekoak ziren soldata-igoerak eskatu zituen. Baina patronalak, berrantolatuta eta indarberrituta, eutsi egin zion oldarraldiari enpresaz enpresa, eta mobilizazio gehienek porrot egin zuten. Horregatik guztiatik, 1979. urtea garai osoko gatazkatsuen izan zen, baina greben izaera defentsiboa izatera igaro zen, 1975-76 urteetan ez bezala.

Lan-harremanen esparru berriaren ezarpenaren aurkako erresistentzia bereziki gogorra izan zen Hego Euskal Herrian, non langile-mugimendua ezkerreko zegoen eta itun sozialaren aldeko sindikatuak erresistentzia aurkitu zuten. Ezker sindikalak indar gehien zuen lekuetan langileen biltzarrek eta ordezkaritza sindikalismoak aldi berean biziraun zuten denbora luzez. Baina, erresistentzia guztia gorabehera, langile-mugimenduaren borrokarako gaitasuna murrizten joan zen, kasu batzuetan hura bultzatu zuten alderdiak desagertu egin zirelako, hala nola ORT eta PTE, eta, beste batzuetan, sindikatu nagusietan egin zuten kanporatze- eta garbiketa-prozesuen ondorioz (UGTn militatzen zuten LCko trotskistak 1978an kanporatu zituzten, eta, hurrengo urtean, baita Nafarroako CCOOko zuzendaritza ere, EMKren aldeko baitzen). Euskal Herriko ezker sindikalaren zati bat Ezkerreko Hautagaitza Unitario deiturikoetan biltzen joan zen, eta, ondoren, 1985ean, ESK-CUIS osatu zuten. Bestalde, Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikalismo erradikal eta asanblearioaren espazioa hartuz joan zen, eta bereziki nabarmendu zen Gobernu sozialistak 1980ko hamarkadan sustatutako industria-birmoldaketaren aurkako borrokan. Espainiako beste lurralde batzuetan ere erresistentzia handia egon zen: Asturiasen esaterako, Ezkerreko Korronte Sindikala (CSI) zegoen.

1982tik aurrera, PSOE Gobernura iritsi zenean, langileen aurkako eraso gogortu egin zen. Errezeta neoliberalak aplikatzen hasi ziren eta birmoldaketa industrialari ekin zitzaion; horrek langile-mugimenduko lantegi borrokalarien etako batzuekin amaitu zuen. Ekonomiaren tertziarizazioak eta kontsumo-gizartearen sorrerak langile-klasearen nortasuna desitxuratu zuten azkenean, eta langile-mugimendua desagertzen joan zen gizarte eraldatzeko eragile politiko gisa.

ONDORIOAK

Diktadura frankistaren azken hamarkadan, erregimenaren aurrean mugimendu indartsu bat sortu zen, batez ere langile-klasearen borrokan inguruan artikulatua. Egoera hartan, erakunde iraultzaileek sektore askotan izan zuten eragina, eta borrokek erradikalizatzen eta zabaltzen lagundu zuten, askotan PCEren euste-politika gorabehera. Horrela, langile-mugimendua erraldoi bat bezala altxatu zen, diktadurari aurrez aurre begiratu ahal izan zion eta burgesiaren autoritatea kinka larrian jarri zuen. Militante haietako askok uste izan zuten diktaduraren amaiera modu erradikalean gertatuko zela, eta gizartean aldaketa sakonak izango zirela, esplotazio kapitalistarekin amaituko zutenak.

Alabaina, langile-klasearen gorkadaren aurrean, burgesiak garaiz erreakzionatzen jakin zuen, eta demokrazia parlamentarioan legitimitate iturri berriak bilatzeko erabili zuen aldaketa politikoaren prozesua. Kontatutakoa Frankismoaren aurkako borroka esperientzia izan bazen ere, langile-mugimenduaren borroka-zikloaren zentzua aldatuz joan zen Trantsizioan zehar, krisi ekonomikoaren, kontsentsuaren kulturaren eta burgesiaren erasoaldiaren ondorioz. Gizarte-gatazkak oraindik ere gora egin zuen, baina hurrengo urteetako langileen borrokek defentsa-izaera hartu zuten. Denborarekin, desagertzen joan ziren ordura arte mobilizazioak bultzatu zituzten ikuspegi iraultzaileak.

Gaur egungo ikuspegitik ilusio bat dirudien arren, hura izan zen iraultza soziala eragiteko azken ahalegin serioa, orain arte behintzat. Gizarteko sektore batzuentzat dena zen posible. Langile-mugimendua bere helburuak lortzetik urrun egon zen, baina haren eta elite burgesaren arteko lehia bizia egon zen. Trantsizioaren ondoren inposatu zen erregimen monarkiko eta parlamentarioak zailtasun handiak izan zituen, antifrankismotik zetozen korrante iraultzaileek hegemonia soziala eskuartzeko erronka luzatu ziotelako.

Militante iraultzaileek diktaduraren amaieran espero zuten haustura iraultzailea azkenean ez zen gertatu, baina frankismoaren aurkako oposizioak garaipen partzial ugari lortu zituen. Langile-mugimenduaren bidez, esaterako, soldata-igoerak eta lanbaldintzen hobekuntzak lortu ziren; auzo-mugimenduaren bidez, aldiz, hobekuntzak egin ziren azpiegiturretan (asfaltatzea, estolderia, argiteria...) eta langile-auzoetako zerbitzuetan (kontsultategiak, haurtzaindegia, kultura-etxeak...); eta gizarte-mugimendu berriak, azkenik, aitzindariak izan ziren hainbat aldarrikapenetan (feminismoa, ekologismoa, sexu-askapena, antimilitarismoa eta bakezaletasuna...). 2008ko krisira arte ezinbestekoak eta ukaezinak genituen eskubideetako asko orduko borrokan ondorio dira. Hori guztia ez zen posible izango mugimendu haren oinarri sozialista eta iraultzailerik gabe. Irrika hausturazale eta iraultzaileak funtsezkoak izan ziren, bai gutxiengo militantea motibatzeke, bai langile-klaseko beste geruza batzuk konbentzitzeko. Iraultzaren pizgarriak gabe, ustez hurbil zegoen iraultzaren akuilurik gabe, mobilizazioak ez ziren modu berean gertatuko eta ez ziren lortuko lortu ziren lan eta gizarte arloko hobekuntzak.

Baina, bestalde, hobekuntza horiek berak (soldaten igoera, ongizate-estatuaren sorrera), epe laburrean burgesia kinka larrian jarri bazuten ere, azkenean langile-klasea sistema kapitalistan txertatu zuten. Soldaten igoerak kontsumismoa ekarri zuen, eta ez autoantolaketa handiagoa; estatuaren demokratizazioak politikarekiko interesik eza ekarri zuen, eta ez parte-hartze horizontal edo asanbleario gehiagorik. Beraz, esan dezakegu mobilizazio-ziklo haren balantzea kontraesankorra izan zela. ●



Langile-mugimenduaren borroka-zikloaren zentzua aldatuz joan zen Trantsizioan zehar, krisi ekonomikoaren, kontsentsuaren kulturaren eta burgesiaren erasoaldiaren ondorioz. Gizarte-gatazkak oraindik ere gora egin zuen, baina hurrengo urteetako langileen borrokek defentsa-izaera hartu zuten



OHARRAK

[1] Siglak hurrenez hurren: Organización Revolucionaria de Trabajadores, Partido del Trabajo de España, Movimiento Comunista de España eta Liga Comunista Revolucionaria-Euskadi Ta Askatasuna VI^a Asambllea.

[2] J.V.AC-ri elkarriketa: Antsoain, 2022/V/7, FDMHN.

[3] J.M.S.M.A.-ri elkarriketa: Iruña, 2018/XI/15.

[4] J.G.I eta R.O.S.-i elkarriketa: Iruña, 2020/XII/10, FDMHN.

[5] J.M.E.Z.-ri elkarriketa.: Tafalla, 22/X/2021, FDMHN.

[6] J.U.B.-ri elkarriketa: Iruña, 2018/X.

BIBLIOGRAFIA

Andrade Blanco, J. A. (2012). *El PCE y el PSOE en (la) transición: la evolución ideológica de la izquierda durante el proceso de cambio político*. Siglo XXI.

Domènech Sampere, X. (2022). *Lucha de clases, franquismo y democracia: obreros y empresarios (1939-1979)*. Akal.

Etxezarreta, M. (Ed.). (1991). *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*. Icaria.

Las Heras, J., Messina, I., & Renteria-Uriarte, X. (2022). The formation of Ezker Sindikalaren Konbergentzia: radical unitary unionism in the Basque Country and Navarre. *Labor History*, 1-20.

Pérez Ibarrola, N. (2016). *Langileria berri baten eraketa. Iruñerria 1956-1976*. Nafarroako Gobernua.

Rodríguez López, E. (2015). *Por qué fracasó la democracia en España. La Transición y el régimen del '78*. Traficantes de Sueños.

Satrustegi Andres, I. (2022). *Beste mundu bat nahi genuen. Nafarroako ezker iraultzailea, 1970-1979*. Nafarroako Gobernua.

Satrustegi Andres, I. (2022). Unitary unionism in the transition: a general approach from Navarre. *Labor History*.

Wilhelmi Casanova, G. (2021). *Sobrevivir a la derrota: Historia del sindicalismo en España, 1975-2004*. Akal.

Hobekuntza horiek berak (soldaten igoera, ongizate-estatuaren sorrera), epe laburrean burgesia kinka larrian jarri bazuten ere, azkenean langile-klasea sistema kapitalistan txertatu zuten

Argitalpena
2023KO MAIATZA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia




arteka